

**GAZTELERAREN *COMO* JUNTAGAILU POLISEMIKOAK
EUSKARAREN BAITAN IZAN DITZAKEEN ORDEZKOEN
PROBLEMATIKA: 1. SUBORDINAZIOAREN ESPARRUA**

*Igone Zabala Unzalu
Juan Carlos Odriozola Pereira*

Hizkera/idazkera teknikoaren inguruko zenbait gogoeta

10. Sarrera orokorra
11. Gaztelerari buruzko bibliografia
12. Euskarari buruzko bibliografia eta zenbait ekarpen berri
 - 12.01. Adizki jokatua + *-(e)n* atzizkia + *bezala*
 - 12.0.1.1. Berrikustapen bibliografikoa
 - 12.0.1.2. Sorrera-mekanismoa
 - 12.02. Izen-sintagma + *bezala*
 - 12.03. Partizipioa + *bezala*
 - 12.04. Aditz-izena + kasu-marka + *bezala*
 - 12.05. X + *ez* + *bezala*
 - 12.06. Laburpena
 - 12.07. Adizki hipotetikoa + *bezala*
 - 12.08. *Bezalako* duten perpauk konparatiboak
 - 12.09. *(en)n* + *modu/era/gisa* + adlatibo, inesibo edo instrumental-marka
 - 12.10. Izen-sintagma + genitiboa + *modu/era/gisa* + adlatibo marka
 - 12.11. *Bezain/beste, bezainbeste*
 - 12.13. *(e)nez* atzizkia duten perpauk modalak
 - 12.14. Perpauk kausaletango *-(e)nez* atzizkiaren erabilera
 - 12.15. Gazteleraz *modo, manera, medio* + *como* egitura duen subordinazio adjektibala
13. Gure *corpus* teknikoaren azterketa
 - 13.0. Laginaren datuak
 - 13.1. Adibideen sailkapena
 - 13.1.1. *Bezala*
 - 13.1.1.1. *Corpusa*
 - 13.1.1.2. Iruzkinak
 - 13.1.2. Konparaketa modala gauzatzeko bestelako baliabideak

- 13.1.2.1. *Corpusa*
 - 13.1.2.2. Iruzkinak
 - 13.1.3. *Bezalako(a)*
 - 13.1.3.1. *Corpusa*
 - 13.1.3.2. Iruzkinak
 - 13.1.4. Konparaketa adjektibala gauzatzeko bestelako baliabideak
 - 13.1.4.1. *Corpusa*
 - 13.1.4.2. Iruzkinak
 - 13.1.5. Konparaketa ez-orokorra
 - 13.1.5.1. *Corpusa*
 - 13.1.5.2. Iruzkinak
14. Laburpen orokorra

GAZTELERAREN COMO JUNTAGAILU POLISEMIKOAK EUSKARA TEKNIKOAREN BAITAN IZAN DITZAKEEN ORDEZKOEN PROBLEMATIKA:

1. SUBORDINAZIOAREN ESPARRUA

Hizkera/idazkera teknikoaren inguruko zenbait gogoeta.

Lan honetan, eta baita beraren atzetik datozkeenak, azken urteotan argitaratu diren testu teknikoetan nabari izan ditugun zenbait arazo morfosintaktikoz arituko gara: Arazook, hizkuntz maila honekiko espezifikoak bide direlarik, gaur eguneko euskal hizkuntzaren diasistema-egoeran, oso proiektzio kaltegarriak izan ditzakete kontestu honetan helburu nagusi bide den informazio-zehaztasunaren ikuspegitik.

Zer esanik ez, gertaera linguistiko bakoitzaren aurrean, jarrera desberdinak har daitezke eta hartzen dira gaur egun, normalkuntz prozesu honetan ari garen guztiok egoera ezagun hori arrunt edo "osasuntsu" ez delakoaz bat etorri eta gero ere. Edonola izanik gure ikuspegitik, a *posteriori* hizkuntza bakoitzari antzeman dakiokkeen logika linguistikoari, sendo eutsi behar zaio, elebidunongan gertatzen den nahitaezko egoera diglosikoaren baitan, ohitura morfosintaktiko onargarriak, eta (beldurrez esango badugu ere), ez-onargarriak bereizteko. Logika linguistiko delako hori, jakina, arazoaren gunean dago, baina ez da honelako sarrera orokorrean hamar lerrotan gauzatzekoa: Kasuz kasu joan behar dateke, gure aburuz, posibilitate guztiak aztertuz. Zenbait esparrutan euskararen potentzialitate gramatikala azken muturreraino eramanean, logika horrek porrot egin du nonbait, ez baitago hizkuntzaren egoera prehistoriko edo historiko, erreal edo irrealera itzultzerik, gaur egun horren zantzurik geratu ez deneko kasuetan behintzat Bestalde ere, ordea, ezin hel dakio-

ke *de facto* diren gaur eguneko zenbait ohiturari: Berorietatiko batzu, gaztelarerekiko edo frantzesarerekiko ukipenak ezarri dituen kalkoak direlako, ez du inork eztabaidatuko, baina kalko guzti horien artean, nola-baiteko bereizkuntza egin beharko da: Euskararen eredu logiko orokorren aurka joan gabe soilik zenbait puntutango intzidentzia izango dutenak batetik, eta bestetik hizkuntza honen “arima” bera bide den (eta pausoka ikusi nahi genukeen) logika hori ikuturik, endakapen-prozesu berri baten sorterazle izango direnak.

Guzti hau, noski, soilik ezaguera-arlo bakoitzari dagozkion espezialitate-mailetako testuak gauzazerakoan defenditu nahi dugu: Hizkuntzaren maila teknikokoak.

Badakigu, teknikoaz gain gutxienez “asma” daitezkeen maila kolokiala eta literarioa, geu arituko gareneko esparrutik urrun samar geratuko direla. Maila kolokialean, zehaztasuna edozein mailatan bezala garrantzitsua bada ere, baliabide estralinguistikoak hala nola munduaren ezaguera edo semiotikak aztertzeko dituen bestelako zeinu estralinguistikoak, laguntzaile onak dira aipaturiko interferentzia interlinguistikoek sorteraziriko anbiguitateak deuseztatzeko eta horrela ez balitz ere, maila hori izango litzateke egoera aktuala banaturik lasaitasun handiagoaz onar litezkeeneko esparrua.

Maila literarioa, bestalde, hildo desberdinetatik joango datekeela eta badoala, garbi dago eta maila guztien hizkuntz normalizaziotik soilik abantailak jasoko diren arren, ez da hau estetika linguistikoaren inguruko goeotak borobiltzeko lekua.

Gure maila tekniko honetan, azkenik, transmititzeko dagoen informazioa zehaztasun osoaz transmititzea dugu helburu nagusia, edozein mailatako baliabide estralinguistikoak nekez lagun dezakeelarik, edo behintzat horrelakoetan “fidatzea” (hots, hizkuntzaren funtzio denotatibotik at funtzio konnotatiboan oinaritzea), gure eritziz arriskutsu samarra delarik.

Gure maila tekniko honetan, azkenik, transmititzeko dagoen informazioa zehaztasun osoaz transmititzea dugu helburu nagusia, edozein mailatako baliabide extralinguistikoak nekez lagun dezakeelarik, edo behintzat horrelakoetan “fidatzea” (hots, hizkuntzaren funtzio denotatibotik at funtzio konnotatiboan oinaritzea), gure eritziz arriskutsu samarra delarik.

Bestaldetik ere, hiztun/idazleok edukin zientifiko/teknikoa izateko den testua gauzatu behar duguneko unean, eragin interlinguistikoak, areagotu egiten dira nonbait, zeren gure arrazonamendua burutzeko erabiltzen ditugun ezagumenduei dagozkien egitura linguistikoak, beharbada bestelako mailetan baino areago, euskara ez den hizkuntzenak baitira.

Azkenik, itzulpenaren ikuspegia defenditu nahi dugu, hain zuzen aurreko ideietatik abiatuz: Batetik, ezaguera praktikoko/pedagogiko gehien

edo guztietan behar den beste bibliografia, maila teknikoan (edo bestelakoetan ere) oso finkaturik dauden hizkuntzetatik jasoko dugula, eta bestetik elebidunongan geureak ditugun bi hizkuntzen arteko parekaketa automatikoak ezinbesteko dirudiela kontutan harturik, maila pedagogikoan, bederen, parekaketa automatiko hori lagun eta bidera lezakeen itzulpen esplizituari, egoki eritzi diogu gure eguneroko zereginetan.

Sarrera honen atzetik dagoen lantxo, bada, proposatua dugun logika linguistikoa delako horren pausoz pauso eramango den bilaren lehenengo urratsa dugu.

10. SARRERA OROKORRA

Dakigunez, munduan zeharreko informabide audiobisual eta argitarapenei legezkiekeen eraginak alde batera utzirik, euskararekiko ukipen fisikoan diharduten gaztelera eta frantzeseraren sistema konjuntiboak eta baita preposizioak ere, oso polisemikoak dira, juntagailu eta preposizio gehienak (edo guztiak) anitz kontestu semantiko/sintaktikotan erabil daitezkeelarik: Ezaguna da hizkuntza erromantzeotan garatu izan diren bi sistema horiek, nonbait, latinerak zuen deklinabide-ereduaren endakapen-prozesuaren eta geroago burutu zen erabateko desagerpenaren ondorio zuzenak direla, baina edozein modutan izanik ere, familia erromaniakoan gertaturikoak intzidentzia garrantzitsua izan du euskarak oso berea duen deklinabidearen egitura semantiko/morfologikoan, eta seguraski maila sintaktikoaren zenbait gertaeratan ere.

Gaztelaren *como* (Eta frantzeseraren *comme*) juntagailua, aurreko kontsiderazioen lerroko kasurik inportanteenetariko dugu nonbait.

Lehenik, eta perpaus konposatuaren arloaren baitan, konparazioaren esparru morfosintaktikoan erabiltzen da gehienetan, modu esplizituan edo ez, bi konparazio-termino azaltzen delarik: *Los animales de este grupo obtienen el alimento como el molusco ancestral / Animalia hauek, molusku-arbasoak bezala lortzen dute elikagaia* (hots, *animalia hauek eta molusku arbasoa, modu berean lortzen dute elikagaia*)

Bigarrenik, eta perpaus bakunaren kontestuan, nolabaiteko atribuzioa adierazteko erabiltzen da, perpausaren elementuren batek mundu errealean dituen ikuspegi, funtzio edo ezaugarrietariko bat adierazirik: *Lo estudiaremos como parte de la cadena trófica / Katea trofikoaren parte modura aztertuko dugu* (hots, *katea trofikoaren parte izateari dagozkion ezaugarriak aztertuko ditugu*).

Hirugarrenik, eta berezko eredu atributiboan sarturik, batez ere maila kolokial eta literarioan erabilirik geurean ere nolabaiteko erabilpena jaso dezakeena: *Está de profesor en la Facultad de Ciencias / Irakasle*

dago Zientzi Fakultatean (eta zer esanik ez, bada irakaslea). Ikus daitekeen, hemengo izenak ez du inolako kasu-markarik hartu edo, bestela esanda, absolutibo mugagabearen marka hartu du. Murritz samarra izan arren, eta oraingoz azterketa sakona gerorako utzirik, honelakoek maila teknikoan ere nolabaiteko txokoa dutela esan daiteke: Titulu edo antze-koetan egin ohi den modura: *El agua como regulador / Ura, erregulatuzaile*.

Aurrerapen modura hiru *como* horietarako euskal ordezeko desberdina eskaini baditugu ere, frogatzeko dugu jokamolderik egokiena horixe ote den. Igorri ere, euskal hiztun askok hiruretan *bezala* igorriko luke, nahiz eta izen-sintagma bigarren eta hirugarren kasuetan deklinatu gabe utzi, berrikustapen bibliografikoan laster ikusiko dugunez.

Hemen eskainiko zaizuen zatian, horretaz, soilik lehenengo arloaz arituko gara, hots, konparazioaren esparruaz.

11. GAZTELERARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA AURKITUROA

Nondik abiatu behar dugun jakin ahal izateko, gaztelerarako Akademiak argitaraturiko *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española* (1984) delakora zuzendu gara, *como* partikula gazteleraren arloan erabil daitekeeneko kontestua ezagutzeko asmoaz, zenbait kapitulu desberdinetan aipatua dela behatu dugularik.

Lehendabiz (1.5.4.a 6.º paragrafoan) *como* partikula adberbio koerlatibo edo juntagailu subordinatuzaile izan daitekeela irakur daiteke, *cómo* tonikoa den adberbio interrogatibo edo eskamatibo delakotik bereizteko: *Lo harás tal como te hemos dicho / ¿Cómo harás ese trabajo?*

Hala *como*, nola beste adberbio batzu ager daitezkeeneko kontestuei dagokienez, hurrengo irakur dezakegu 3.20.10 paragrafoan: Izenorde erlatibo diren *que* eta *el cual* ordezkari ditzakete, hau da, subordinatu adjektibo sarrera eman diezaiekete; adberbio edo izenorde erlatibo modura betetetzen duten funtzio horrek, bada, beraiek txertaturiko menpeko perpausak subordinatu adjektibo eta zirkunstantzialen arteko eremuan lekurtzen ditu.

Eta aurrerago, *como* juntagailuari buruz, espreski, beraren jatorri modalari dagokion esangura duela esateaz gain, *modo*, *manera*, *medio*, *procedimiento*, *arte* eta bestelako izen substantibo aitzindariekin batera erabiltzen direla gaineratu da: *Estaban de acuerdo sobre la manera como habría de establecerse la demanda*.

Berori, subordinazio adjektibaleren esparruari dagozkionez, baina subordinazio zirkunstantzialaren arloan ere azal daitekeela esan zaigu liburu berean. Hasteko, esaldi subordinatu zirkunstantzialen sailaren ohar oro-

korren puntuan, sailkapenerako erizpide semantikoak erabili dituztenez, haien artean zalantzazko mugapena duten zona batzu gauzatu direla aipatu dute.

Baina *como* juntagailua, ez da perpaus zirkunstantzialen mota guztiei lotuta agertuko, soilik zenbait bereziri baizik. Hona hemen, perpaus-mota horiek:

a) Zenbait perpaus modaletan. *Se portó noblemente, como convenía a su condición.*

b) Perpaus konparatiboetan: Talde honen barnean, bi azpisail desberdinetan aipatu da.

b1) Konparatibo modalak: *Como los cuerpos crecen poco a poco y presto se acaban bien así caemos fácilmente y apenas en largo tiempo nos levantamos.*

b2) Konparatibo kuantitatiboak. Sail honen barnean, soilik berdintasun edo baliokidetasuna adierazten dutenak kontsidera daitezke, desberdintasunekoak gure oraingo zereginetatik kanpo daudelarik: *Quedó tan preso de mis amores como lo dieron a entender sus demostraciones.*

c) Zenbait perpaus kausaletan: *Como fuesen muy pocos tuvieron que rendirse.*

GILik (1961), ez du sailkapen bera burutu; esaldi kausalak, subordinatu substantiboak direlakoek osoturiko taldearen perpaus konplementario zirkunstantzial izeneko alorrean sailkatu ditu, goian eta *Esbozo* delakoaren arauera aipaturiko beste zirkunstantzial guztiak perpaus adberbial izeneko taldean bildu dituelarik.

Bereizketa hau egiteko erabili duen erizpidea, hurrengoa da: Aditz nagusiaren zirkunstantziak adierazten dituzteneko neurrian, subordinatu adberbialetatik hurbil daude. Hala ere, erizpide formalista erabili nahi izanez gero, konplementario substantibo direla pentsa dezakegu, aditz nagusiarri preposizio baten bidez loturik daudelarik, substantibo morfologikoan baliokide baitira.

Euskarari dagokionez, ez dugu uste horrelako bereizketarik egitea beharrezkoa denik, esaldi menperatuen artean izen, izenlagun edo adizlagunaren funtzioa dutenak bereiztea nahikoa izan daitekeelarik.

Bestalde, eta *Esbozo*aren perpaus zirkunstantzialen sarreran mugapen zalantzarria zutenen artean aipatuak ditugun esaldi modalen taldean, konparatibo modalak ere, sartu ditu GILik, horren arrazoi modura konparaketaren gradu-eza defenditu duelarik.

Perpaus adberbial modal modura izendatu dituenen kapituluan, beste mota batzutako interferentziak ere, aipatu ditu autore honek, hala nola

aditz subordinatzaile eta subordinatua erreferentzikideak direneko kasuan gerta daitezkeen elipsiak aztertu dituenean agertu duena. Hasteko, adibide hau eskaini du: *Has hablado como [habla] un necio*. Eta modu honetara segitu du bere azalpena: Artikulua ezabatu egiten bada eta *has hablado como necio* igortzen bada, perpausaren substantibo bati predikatu nominal bat esleitzen dion nexo izatera aldatuko da *como* partikula.

Ikusi berria dugun adiera horren eta aditzaren errepikapenaren artean dagoen graduazioa, soilik kontestuaren arauera finka daiteke, eta sarritan hiztunaren gogoan perpaus bakuna edo subordinatu adberbiala egon ote den finkatzea zail gertatzen da.

Beraz, GILik esan duenaren arauera, perpaus bakunekiko interferentziak ere, gerta daitezke batzutan. *Como* juntagailuaren erabilera espletiboaren (hots, erabilera gramatikal hutsaren) aurrean gaudela esan dezakegu kasu horietan.

Autore beraren gramatikan, *como*, kondizional eta modalaren arteko esangura duten perpausak eratzeko, *si* + *subjuntiboa* sekuentziaren aurrean kokatzen dela irakur daiteke zenbait lerroz aurrerago.

Gure uste apalean, mota horretako perpausetan, baldintzazko eta moduzko esaldien arteko intersektzioa ezezik, konparatiboekikoa ere, ikus daiteke. Izan ere, hipotesi batekiko konparaketa direla esan daiteke horiei buruz.

Puntu hau amaitzeko, gure hizkuntz sistemaren finkapen-eza eta inguruko hizkuntzekiko interferentzia nabariak direla eta, oso interesgarri deritzogu *como* juntagailuaren banaketa-eremu semantikoak eta beraien arteko interferentziak ahalik eta garbien azaltzeari, euskararen sisteman izan duketen eragina posible den zehaztasun handienaz detektatu ahal izateko.

Horrela ba, aurreko lerroetan azaldu dugunaren arauera, 11. koadroko eskema eraiki dezakegu, profilatutako eremuei dagokien eredu morfologikoa ere burutzen saiatuz.


Koadro horren azkeneko berdintasunezko konparatibo horiek azaltzeko erabiltzen diren izenorde koerlatiboei buruz, *como* juntagailu pronominalak bai eta hizkuntza literarioan ere ia osoki ordezkatu dituela irakur dezakegu *Esbozoan*.

Laburtzeko, eskemaren sailkapena kontutan harturik, gutxienez gaztelaren esparruan bi eremu nagusi bereiz ditzakegula ikusi dugu: Lehenik, subordinazioaren eremua eta bigarrenik, atribuzioarena.

Bi eremuok bereizteko erizpidea, hurrengo hau izan daiteke: *Como* juntagailuari loturikoa artikulurik gabeko izen-sintagma denean atribu-

zioaren arloan sartuak gabela pentsatuko dugu, beste edozein motatako elementu denean ordea, *como* juntagailua sobordinatua txertatzeko baliabide gramatikal modura erabili delakoan utziko dugularik.

Bi eremuen arteko bereizketa hori, gaztelaraz zein euskaraz ere, bistakoa dela pentsa dezake gramatikari buruzko oinarritzko ezagupena



1.1.- koadroa: Gaztelararen *como* juntagailuak dituen erabilerak.

duen edozeinek, baina dena dela, euskaldun askok (dialekto edo idiolektoen gorabehera), lasai ordezkaturko luke edozein kontestutan agerturiko *como* juntagailua *bezala* partikularen bidez; hori bai, bigarren taldeari dagozkion adibideetan, *bezala*, deklinatu gabeko izenari lotuta eta lehengo taldeari dagozkionetan, beharko lukeen elementuari loturik; hots, gazteleraren *como* + *artikulu determinatua* + *izena* / *como* + *izena* oposaketan *bezala* hain zuzen ere.

12. EUSKARARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA ETA ZENBAIT EKARPEN BERRI

12.01 Adizki jokatua + (e)n atzikia + *bezala*

12.01.1. *Berrikustapen bibliografikoa*

Has gaitezen euskarari buruzko bibliografian, *bezala* partikulari buruz esan dena aztertzen.

AZKUEK (1925), bai *zelan* eta *nola*, bai *honela*, *horrela*, *hala*, *bestela* eta *bezala* direlakoek, modua adierazten dutela idatzi zuen. LAFFITEK (1944) ere, berdintasun-konparatiboen taldean aipatu zuen *bezala* partikula, moduzkoen artean hain zuzen ere. Bestalde, ondokoa gehitu zuen: Perpaus konplementuak (=menperatuak) adizki jokatua duenean, *bezala* delakoaren aurrean jartzeaz gain, *-(e)n* atzikia hartzen du: *Bizi den bezala hilen da*. Hau da, beste modu batera esanez, *adizki jokatua* + *-(e)n atzikia* + *bezala* sekuentzia apurtezina dugu, *bezala* nonbait adizkiarekiko enklitikoa delarik. Modu berean, adizki jokatu horren elisioa gerta daitekeela azaldu du: *Bizi bezala hilen da*.

ITHURRYK (1979) ere, bere gramatikan, halaber, berdintasun-konparatiboen taldearen barnean sailkatu, eta modu- eta antzekotasun-adberbio konparatibo modura definitu du. Adberbio horren sorrerari dagokionez, eta bezain eta bezainbat juntagailuei dagokien modu berean, *bezala*, *bezain* eta *bezainbat* direlakoak, hurrenez hurren, *hala*, *hain* eta *hainbat* partikuletatik sortu direla esan du.

Bestalde, LAFONEK ere (1980), *bezalak* konparazioa adierazten duela eman du aditzera. VILLASANTEK (1976) ordea, perpaus modalen taldearen barnean aipatu du *bezala*, modu-adberbiotzat harturik, baina gai honetan inolako konparaziorik eskaini gabe. Izan ere, gaztelerazko akademiari jarraitu zaio perpaus konpasatuen sintaxia sailkatzeko orduan, aurrerago Axularren testutik ateratako kasuei buruz hurrengo esan duelarik: *-(e)n atzikiaren bidez erutzen dira eta beraz, funtzio adjektibaleko erlatiboen aldakietariko bat osotzen dute; gazteleraz ez bezala, baina, euskararen kasuan ez dago aitzindari espliziturik ez ezkuturik. Lan berberaren*

hurrengo kapituluan, “konparatibo modalak” izeneko kapituluan hain zuzen ere, beste baliabide batzu plazaratu ditu, idazle lapurtarrak konparatibo modalak itxuratzeko erabili zituen hurrengook hain zuzen: *Nola + bait- / (e)n, nola + bait- + hala, nola + halatan, nola + bait- + ezen*.

LAFITTEk ere, aipatua du galdekari eta erakusleen arteko koerlazioaren bidez adieraz daitekeen berdintasun-konparazioaren mota hau: *Nola bizi, hala hil*.

Hala ere, LAFITTEk berak formula proberbial modura sailkatu ditu mota honetakoak, aurrerago adizki jokatuari dagokionez *bait-* aurrizkia erantsi behar zaiola gehitu duelarik.

ALTUNAK (1980) argitaratutako artikuluan Etxepareren *nola* eta *zeren* partikulen erabilera aztertutakoan, *hanbat/hain/hala + nola* egiturak erabiliz eraikitako perpausak azaldu ditu eta Axularrek maiz erabili zituen *bezanbat, bezain* eta *bezala* juntagailuekin parekatu ditu.

Halaber, lehenago LAFONEk eginiko baieztapena, errepikatu egin du, hots, hizkuntza erromanikoen arauera, Axularrek zein beste idazle batzuk “bat bitan banaturik” ematen duela.

Bestalde, bi partikulen bidez osoturiko esaldiak hizkuntza erromani-koen kutsua dutela esan duen bitartean, hitz bakarrekoei euskal formaren kalifikazioa esleitu die, Axularrek eta beste idazleek bata zein bestea noiz erabili zuten azaldu ez duelarik.

ALTUNAK (1979) berak, sailkatu egin ditu Etxepareren idazlanetan agerturiko adberbio konparatiboak, *bezala* modu-adberbiotzat harturik konparatibo eraltiboen sailean, hau da, konparazio termino espliziturik behar dutenen artean sartu duelarik. Edozein modutan ere, *erakuslea + galdekaria* binomioan oinarrituriko egitura horiek, gaur egun soilik oso esaldi adierazkorretan erabiltzen direlakoan gaude, eta ez dirudi maila tekniko-rako oso egokiak direnik. Beraien ordez, normatibo bide den *-(e)n bezala* horretaz gain, *-(e)neko modu + inesibo edo adlatibo-marka* moduko egiturak erabil daitezke, nonbait maila teknikoari espezifikoki dagozkiolarik. Orain arte berrikusitako bibliografiaren arauera, beraz, *bezala* juntagailuak, modu-adberbioa izanik, berdintasun-konparaketa adierazten duela ondoriozta dezakegu. Horrela, *como* juntagailuaren hedapena adierazi dugunean, soilik moduzko eta berdintasunezko konparatiboen arteko intersekzioan dagoen eremu semantikoan erabili beharko genuke bibliografia horren (eta baita gure eritziaren) arauera.

Bestalde, esaldi menperatuaren aditza jokaturik dagoeneko kasuetan erlatiboak lotzeko erabiltzen den *-(e)n* atzizki konjuntiboa tartekatu behar da adizki hori eta *bezala* adberbioaren artean. Halaber, errepikaturiko zenbait elementu elidi daitezkeela aipatu da bibliografian zehar.

12.01.2. *Sorrera-mekanismoa*

Aipaturiko posibilitate horien kausa aztertzen hasi baino lehenago, ikus dezagun GOENAGAk(1980) bere gramatikan *perpau* erlatiboa + **bezala** motako egituretarako proposatu duen sorrera-mekanismoa: Geuk igortzen ditugun perpau konparatiboak, erlatibo arruntak eratzeko erabili ohi dugun atzizki kontjuntiboaz lotzen direla eta, beroriek eratzeko orduan erlatiboari dagokionean jokatzen deneko modu berean egin behar dela ondorioztatu du.

Bide horretatik abiaturik, gramatika sortzailearen baitan kontsideratzen den egitura sakonean, errepikaturiko izen-sintagma bat amankomunean izango duten bi perpau bilatu behar dugu (hots, izen-sintagma erreferentzikideren bat izango dutenak). Geroago, perpau matrizeko izen-sintagmarekiko erreferentzikidea izanik, perpau txertatuan dagoen izen-sintagma ezabatuko da. Prozesuaren amaieran azalerako egitura geratuko zaigun sintagma *bezala* modu-adberbioa dela jakinik, sakonerako egitura erreferentzikideak izango diren izen-sintagmak ere, modu-adberbioak izango dira halaberharrez.

ALTUNAK (1979) buruturiko adberbio konparatiboen sailkapena kontutan hartzea, besterik ez dugu behar *bezala* adberbio erlatiboen artean sailkatua duela gogoratzeko, horrek konparaketa-termino esplizitua behar duela adieraziko duelarik. Izan ere, *bezala* konparaketa-terminoa den elementu horrekiko enklitiko agertzen da. Halaber, egitura sakonerako proposa daitezkeen perpausei dagokienez, autore honek “adberbio absolutu” eritzi dienetarikoa izango da izen-sintagma korreferentea eratuko duen adberbioa, konparaketa-termino espliziturik behar ez dutenetarikoa alegia. Hala ere, ALTUNAKen koadroa begiraturik, hurrengoaz konturatu gara: Kualitatezko eta kantitatezko adberbio erlatiboei, hau da, *bezain* / bai eta *bezanbat* adberbioei erakusleekin morfologikoki zuzen erlazonaturiko adberbio absolutuak (*honein, horrein, hain eta hainbat*) esleitu dizkien bitartean, moduzko adberbioari (*bezala*) ez dio absolututzat jo daitezkeen *honela, horrela* eta *hala* adberbioetatik bat ere egokitu.

Horren arrazoia, berak aztertuturiko *corpusean* horrelakoen ausentzian bide datza. Seguraski, arrazoi berberetatik, aipatua du kantitatezko adberbio absolutu bakarra, kualitatezkoei dagokienez, ordea, hiru maila desberdinetako erakusleetan oinarrituriko hirurak azaldu dituen bitartean. Hala ere, ALTUNAK agertu dituen erlatibo “klasikoaren” ***hain/hanbat /hala + nola*** formak kontutan harturik, ez da zaila, analogiaz *bezala* erlatiboaren parean *honela, horrela, hala* moduzko adberbio absolutuak koka daitezkeela ondorioztatzea.

Izan ere, GOENAGAk(1980) aurreko kontsiderazio horiek aipatu gabe, *honela* adberbioaz adierazi du egitura sakonean errepikaturiko sintagma. Horrela ba,

(1) Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.

azalerako egitura lortzearren, hurrengo bi esaldiak proposatu ditu egitura sakonerako:

(1a) *Zuk, honela egin behar duzu.*

(1b) *Aitak, honela egin du.*

Ondoren, transformazio erlatiboaren bidez, bietariko bat, adizlagun modura txertatu du bestean:

→ [*Zuk [aitak honela egin duen] honela egin behar duzu].

Eta *honela* erreferentzikidea ezabatuz:

→ *Zuk aitak egin duen honela egin behar duzu.

Baina GOENAGAK berak adiera eman duenez, hori ez da euskara. Horren zioa, ALTUNAREN sailkapenean dagoela pentsa dezakegu. Esan ere, ondokoa esan daiteke: Perpaus bat bestean txertatutakoan perpaus matrizearen konparaketa-terminoa, esplizitua dugu eta beraz, geure aberez, konparaketa-adberbio erlatiboaz ordezkatu beharko dugu adberbio absolutua:

→ (1) *Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.*

Azkeneko transformazio hori, geroago ikusiko dugunez, berdintasunezko konparatibo guztien sorrera azaltzeko beharrezkoa izango da, eta horretaz, orokorra.

Baina aurrera segitu baino lehen, azter dezagun GOENAGAK kapitulu berean aipatua duen fenomeno. Bere hitzak zehazki errepikatu ditugu hemen: “*Bezala* harek berdintasuna adierazten digu, baina ez digu esaten zeri buruzko berdintasuna dugun. Nik esaten badut, aitak bezala egin behar duzu, *bezala* horrek zer adierazten digun ez dakigu: Ongi, txukun, alai”.

BIRAUDek (1982) grekeraren egitura konparatiboari buruz erabili duen terminologia geureganatuz, ondokoa esan dezakegu: Perpaus nagusiak adierazten duen ekintzaren “zirkunstantzia modalaren” adierezpena, perpaus txertatuan datza, berorrek, era berean, bere interpretazio semantiko kontestu situazional edo testualean duelarik.

Hori horrela izanik, eta oraindik era BIRAUDI jarraiturik, koerlazionatu diren sintagmek beraien semantismoa erreferentzia hutsaz hartzen dutelarik, lexikalizatzeko orduan espezifizitate baxuko forma semantikoak erabiliko direnez, kategoria batetako (modu-adberbio edo kualitate, kantitate edo neurrizko adjektiboetako) ordezkari eta erreferentzialak direla adieraziko dute soilik.

Berdintasunezko konparatiboen artean, lexikalizazio-graduaren arauerako nolabaiteko graduazioa dagoela onartzekotan, *bezala* adberbio erlatiboaren bidez eraikitakoak, gradurik baxuenean kokatu behar genituzke, **bezain** + *adjektiboa* / *adberbioa* edo **bezainbat** + *izena* lexikalizazio-gradu altuagoa dutela onartu behar genukeen bitartean.

Adibide bat ematearren, konpara ditzagun hurrengo bi perpausak:

(2) *Artropodoak, narraztiak bezala moldatu ziren lehorrera.*

(3) *Artropodoak, narraztiak bezain ondo moldatu ziren lehorrera.*

(2) perpausetik atera ditzakegun ondorioak, honelaxe labur daitezke: Perpaus nagusiaren subjektuak, ekintzaren bat burutu du eta perpaus menperatuaren bidez, ekintza hori gertatuko deneko denbora, lekua edo beste zirkunstantziarik gabe, *modua* adierazi da. Baina modu hori, bestelako subjektu batek beste ekintzaren bat edo ekintza bera burutzeko erabili duen modu bera dela baino gehiago jakiterik ez dugu. Informazio handiago eskuratzeko, kontestura jo behar genuke.

(3) adibidean ordea, (2) perpausak eman digun informazioari, *ondo* adberbioa gehitu zaio, maila kuantitatiboan izan gabe kualitatiboan mintzatuko garela adierazteko *bezain* adberbio erlatiboari loturik. Eta beraz, badakigu esaldi menperatuaren subjektuak ekintza burutu dueneko moduaren kalitateaz ari garela eta ez, adibidez, azkartasunaz edo edertasunaz.

Horrelako erreferentziarik egin gabe, zirkunstantzia modala adierazteko, lexikalizazio-gradurik altuena aukera genezake, esate baterako:

(4) *Artropodoak, guztiz ondo moldatu ziren lehorrera* (moldatzeko modurik onena irakurleak ezagun duela suposatuz, noski).

Lexikalizaio-gradurik baxuena, hau da **-(e)n** + **bezala** motako esaldiek jasotzen duten lexikalizazio-gradua duten esaldi konparatiboak, bibliografian modu zehatzean ebaki ez badira ere, "konparaketa orokorra" delako izena esleituko diegu, "konparaketa ez-orokor" eritziko diegunetatik bereiztearren.

12.02. **Izen-sintagma + bezala**

Honaino heldu garelarik, joan gaitezen urrunagora, oinarrizko berdintasun-konparaketa modalaren mekanismoa izanik, autoreek elipsis bidez azalduak dituzten beste perpausen sorrera-mekanismoak ere, deskribatzen saia baikaitezke. Lehenengo eta behin *izen-sintagma* + **bezala** + *aditza* motako perpausen sorrera-mekanismoaz arituko gara.

Horretarako, GOENAGAk egin duen modu berean, **-(e)n** + **bezala** egitura duen perpausari, ezabaketa-transformazioa aplikatzea besterik ez dugu behar. Esate baterako, (1) perpausa harturik:

(1) *Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.*

→ (1') *Zuk, aitak \emptyset bezala egin behar duzu.*

Baina perpaus menperatuaren izen-sintagma izen substantiboa ezezik, izen substantiboa + izen adjektiboa, izenordea, erakuslea, adberbio eta abar izan daitekeela ikusi dugu; bestalde, beraren deklinabide-marka ergatiboarena ezezik, beste gehienena ere izan daitekeela diruci. Adibidez:

(2) *Moluskuek, anelidoek lortu duten bezala lortu dute moldapen hori.*

→ (2') *Moluskuek, anelidoek $\emptyset\emptyset$ bezala lortu dute moldapen hori.*

(3) *Hauek, beste horiek lortu duten bezala lortu dute moldapen hori.*

→ (3') *Hauek, beste horiek $\emptyset\emptyset$ bezala lortu dute moldapen hori.*

(4) *Sintesi hori, gaur egun gertatzen den bezala gertatu zatekeen garai haietan.*

→ (4') *Sintesi hori, gaur egun $\emptyset\emptyset$ bezala gertatu zatekeen garai haietan.*

(5) *Beste kasuetan arazo etikoak agertu zaizkigun bezala, arazo etikoak agertu zaizkigu oraingoan ere.*

→ (5') *Beste kasuetan $\emptyset\emptyset\emptyset$ bezala arazo etikoak agertu zaizkigu oraingoan ere.*

Bestalde, kontsidera dezagun mugagabeen deklinaturiko *IS + bezala* egitura; berau, klasikoek (Axularrek bai behintzat) erabili zuten arren, gaur egun oso landuak ez diren hizkeretan azaltzen dela esan liteke. Egia esan, hurrengo lan batetan, ikustekoa dugu, erreduzitzaile izaerari dagozkion ezaugarriak aztertuko direla adierazi nahi izanez gero, *erreduzitzaile modura / gisara / erara* igortzea egokiagoa bide dela, 10 sarrera orokorrean aurreratu dugunaren arauera. Edonola ere, zein edukin semantiko duen edo eta esleki dakioken alde batera utzirik, azaleko egitura hau, nekez lor liteke profilatua dugun egitura sakonetik eta bibliografia sortzailan deskribatu zaigun prozedimenduaren bidez. Berau frogatzeko, horrelako adibide batetatik abiatuko gara erabilera egokiak duen egitura sakoneraino iritsi nahirik:

(6) *Molekula hori erreduzitzaile bezala aztertu dugu.*

Hemen, zer esanik ez, alderantzizko bidea egin behar genuke, errepikaturik dagokeen aditza berragertezteko asmotan:

(6')* *Molekula hori, erreduzitzaile aztertzen dugun bezala aztertu dugu.*

Honetatik, *erreduzitzaile* izenak galdu izan duen kasu-marka asmatu behar genuke aurrerantz joateko. Izan ere, orain arte mekanismo hau

azalpen baliogarri gertatu deneko kasuetan, ez da kasu-markarik galdu eta hemengo honetan, edozein kasu gaineratzea ere, arbitrario gerta liteke beti gramatika sortzailearen usadioaren barnean. Soilik benetan igortzen diren perpausetan ezabatu den aditza atributibo deneko kasuetan hel gaitzke lehenago deskribatu dugun egitura sakon horretera, bertan bi perpaus atributibo izango ditugunez, zentzu zabaleko atributu hori “zuzen” egon baitaiteke absolutibo mugagabeen:

(7) *Burdina erreduzitzaile gertatu den bezala, oxidatzaile gertatu da sufrea.*

→ (7') *Burdina erreduzitzaile \emptyset bezala, oxidatzaile gertatu da sufrea.*

Ikus daitekeenez, perpaus hau, gramatikala da, baina edozein modutan ere, absolutibo mugagabeen deklinaturiko IS horretaz gain, kopula-aditza intrantsitibo deneko kasuetan, absolutibo mugatuan deklinaturiko subjektua agertuko da. Dena dela, eta jadanik subordinazioaren esparrutik urrun samar, absolutibo mugagaberako zeharo egokitzeak jo daitezkeen agerpenak, beste nonbait aztertu behar ditugu zehazkiago beraiek ere *como* juntagailuari dagozkiola esan bailiteke: Ikus berriro ere 10 sarrera orokorraren sailkapen hirukoitza.

12.03. Partizipioa + *bezala*

Saia gaitzen *partizipioa* + *bezala* motako perpausak azaltzen. Oraingo kasuan, nabaria da adizki perifrastiko osoa ezabatu beharrean soilik laguntzailea ezabatu dugula, eta bertatik, laguntzaileak dituen ezaugarri morfologikoak (pertsonea, aldia eta nolabaiteko moduari dagozkion ezaugarri horiek) errepikatuta egonik ere, partizipioaren baitan hau da, ezaugarri aspektualetan eta sarrera lexikal modura duen edukin semantikoan bertan nolabaiteko ezberdintasunik dagoela ondoriozta daiteke, bera izan baita eliditu gabe geratu dena.

Kasu honetan bada, egitura sakoneko bi perpausetan aditzarekiko komunztaduran daudekeen IS guztiak, bai eta aldia eta modua ere, errepikaturik egongo dira, partizipazioa bera desberdina izanik:

(8a) *Narrazti horiek, ingurunera, horrela moldatu ziren.*

(8b) *Narrazti horiek, horrela suntsitu ziren.*

→ (8ⁱ) p_0 [*Narrazti horiek] IS [p_1 [narrazti horiek ingurunera horrela moldatu ziren] p_1 horrela] IS suntsitu ziren] p_0

Horrela sintagma erreferentzikidea ezabatuz:

→ (8ⁱⁱ) *Narrazti horiek, narrazti horiek ingurunera \emptyset moldatu ziren horrela suntsitu ziren.*

Erlatiboako perpausak adberbioa absolutua eskatu gabe adberbio erlatiboak eskatzen duenez,

→ (8ⁱⁱⁱ) *Narrazti horiek, narrazti horiek ingurunera moldatu ziren bezala suntsitu ziren.*

Errepikaturiko izen-sintagma ezabaturik:

→ (8^{iv}) *Narrazti horiek, øø ingurunera moldatu ziren bezala suntsitu ziren.*

Bestalde, perpaus nagusiaren laguntzailea eta menperatuarena bera izanik, elidi dezakegunez:

→ (8) *Narrazti horiek, ingurunera moldatu ø bezala suntsitu ziren.*

Beraz, azaleran, *partizipioa* + **bezala** egitura dugu.

Horrela ba, nabari da batetik elipsia adizki perifrastiko horren laguntzaileak amankomunak izateak baimendu duela, baina bestetik ere, maila pragmatiko/estilistikoan honek duen isladapen garrantzitsua, azpimarratzekoa dugu: Neurri handiz adizki perifrastikoz osoturik dagoen paradig-mako hizkuntza honetan, besterik ez bada ere, kakofoni arazoak gertatu ohi dira, adizki laguntzailea berdin edo morfologikoki antzeko diren hurbilketa fisikoa dela kausa. Deskribatua dugun elipsia, konponbide estilistikoetariko bat dugu.

12.04. Aditz-izena + kasu-marka + **bezala**

Mota honetako egiturak, gaur egun nekez erabiltzen badira ere, ugari samarrak dira gutxienez Axularren testuan. Ikus ditzagun beraz, bertan hautaturiko bi adibide:

– *Asko baita aditzera emaiteko bizitzen bezala hiltzen ere dela* (Ax.144.23).

– *Aitzitik haserretzeaz bezala ez haserretzeaz ere egin daiteke bekhatu* (Ax.183.10).

Egiturak erraztearren, perpaus konparatibo hutsa hartuko dugu, gaurko hizkerara moldatu eta gero:

(9) *Bizitzen bezala hiltzen da.*

(10) *Haserretzeaz bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

(9) Perpauserako proposa daitekeen egitura sakona, hurrengoa da:

(9a) *Horrela bizitzen da.*

(9b) *Horrela hiltzen da.*

Eta bi perpausak erlazionatuz:

→ (9ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[P_1][horrela bizitzen den]_{P_1} horrela]_{IS} hiltzen da]_P$

Errepikaturiko sintagmak ezabatuz,

→ (9ⁱⁱ) * \emptyset *bizitzen den horrela hiltzen da.*

Eta adberbio absolutua erlatiboaz ordezkatzuz.

→ (9ⁱⁱⁱ) *Bizitzen den bezala hiltzen da.*

Orain, errepikaturiko laguntzailea ezabatuz,

→ (9) *Bizitzen \emptyset bezala hiltzen da.*

(10) perpausari dagokionez, hona hemen proposa daitekeen sako-nerako egitura:

→ (10a) *Haserretzeaz horrela egin daiteke bekatu.*

→ (10b) *Ez haserretzeaz ere, horrela egin daiteke bekatu.*

→ (10ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[P_1][haserretzeaz bekatu horrela egin daitekeen]_{P_1} horrela]_{IS}$
ez haserretzeaz ere egin daiteke bekatu]_P

Eta beste kasuetan bezala jokatzuz,

→ (10ⁱⁱ) **Haserretzeaz \emptyset bekatu egin daitekeen horrela ez haserretzeaz ere egin daiteke bekatu.*

→ (10ⁱⁱⁱ) *Haserretzeaz bekatu egin daitekeen bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

→ (10) *Haserretzeaz $\emptyset\emptyset\emptyset$ bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

12.05. X + ez + **bezala**

Puntu honetara heldu garelarik, X+ez+**bezala** motako egiturak azaltzen saiatzea baino ez zaigu geratu. Adibidez, igorritako perpausa hurrengo-
goa izanik:

(11) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak ez bezala funtzionatu du.*

hurrengo egitura sakona proposa dezakegu:

(11a) *Lehenengoak, ez du horrela funtzionatu.*

(11b) *Bigarren erreakzioak, horrela funtzionatu du.*

Ezezko perpausa erlatibizatu ahal izateko, horretarako tresneria generatibistak sakon lezakeena alde batera utzirik, amaierako kokapena izan behar du laguntzaileak, erlazio-atzizkia hartu behar baitu:

→ (11ⁱ) $_{P_0}$ [**Bigarren erreakzioak* $_{IS}$ [$_{P_1}$ [*lehenengoak horrela funtzionatu ez duen*] $_{P_1}$ *horrela*] $_{IS}$ *funtzionatu du*] $_{P}$

→ (11ⁱⁱ) **Bigarren erreakzioak, lehenengoak funtzionatu ez duen horrela funtzionatu du.*

→ (11ⁱⁱⁱ) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak funtzionatu ez duen bezala funtzionatu du.*

Eta errepikaturiko aditza ezaba dezakegunez,

→ (11) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak \emptyset ez \emptyset bezala funtzionatu du.*

Laburtuz, X + bezala egitura orokorrari, ez adberbioa tartekatu zaio, sakoneko bi perpausek adierazteko dituzten ezaugarrien arteko desberdintasunak eraginik.

12.06. Orain arte esandakoaren laburpena

Horrela ba, honelaxe labur genezake orain arte *bezala* honen inguruan esandakoa:

Bezala adberbioa edo eta baliabide gramatikala, izen-sintagma, *-(e)n* atzizkidun adizki jokatu eta partizipioarekiko enklitikoa agertzen da hizkuntzaren maila orokorrean.

Hiztun arruntaren kontzientzia linguistikoan, bi terminotako konparaketa egiteko delako ezaguera garbi samar egoteaz gain, tresneria sortzaileak ere, sakonean elementu bat edo gehiago amankomunean duten bi perpausetan ezartzen den elementu amankomun erreferentzikiidearen elipsien bidez “atera” daitezkeela adierazia du.

Era horretara ere, *aditz-izen deklinatua + bezala* moduko egitura uler liteke, nahiz eta gaur egun gure hizkeretan arraro samar gerta daitekeen. Azkenik, *absolutibo mugagabeen deklinaturiko izena + bezala* egiturak, maila guztietan dokumentaturik egon arren, ezin jaso dezake maila horretako azalpenik eta, bestelako lan batetan ikusiko dugunez, egoki zein ez-egoki eritzirik ere, konparazioak adierazteko erabili gabe, nolabaiteko atribuzioa gauzatzeko hautatzen da.

12.07. Adizki hipotetikoa + bezala

Esbozo... delakoak azterturiko moduzko perpausai buruz aritu garenean, baldintza, modua eta konparazioaren intersektiotzat hartu ditugu *como + si + adizki subjuntiboa* motako egiturak gazteleraz.

Euskaraz, besteak beste, eremu semantiko hau estalia duten egiturak, bai motatakoak dira: *Adizki hipotetikoa + bezala* eta *bai(t) + adizki hipotetikoa + -(e)n*.

Bibliografian, maiz aipatu dira bi mota horietako egiturak. Esate baterako, LAFITTEk (1944), konparatibo kondizional delako izena esleitu die *bez-* formaren aurrean “supositibo ebentuala” duten perpausai: *Hura balitz bezala*.

Halaber, kasu horietan ere elipsia gerta daitekeela esan du:

Egizu zuretzat balitz bezala = egizu zuretzat bezala (ikus 12.02).

AZKUEk (1925), “supositibo konparatua” delako izena esleitu die, baldintzazko adizkiei aplikaturiko *bai(t)-* aurrizkia eta *-(e)n* atzizkia eramaten dituzten perpausai: *Bailetorren*.

VILLASANTEK (1976), Axularrek mota horretako perpausak gauzatzeko erabili zuen egitura azaldu digu, idazle horrek kasu hauetarako hautatu ohi zuen lotura *-(e)n* atzizki konjuntiboa izan barik, *bait-* aurrizkia zela gogoratu duelarik: *Obran baitzina bezala* (Ax.242). Aurrerago, bestalde, gaur egun mota horretako perpausak baldintzazko perpaus arruntak bezala gauzatzen direla eman du aditzera: *Axular sekula irakurri ez banu bezalaxe*.

AZKUEk (1925), *banentor bezala* modukoak (hots, *adizki hipotetikoa + bezala* motako egiturak), beste hizkuntzetatik kalkaturiko lokuziotzat hartu ditu bere *Morfologian*, beraren ustez formarik jatorrena bestea delarik.

Gaur egun, gutxienez maila idatzian forma biak erabiltzen badira ere, bigarrenekoak lehenengoak baino kutsu kultu eta literarioagoa du gure eritziz.

GOENAGAK (1980), hauxe adierazi du perpaus hauei buruz, *bezala* moduzko adberbio erlatiboa eramateagatik, modua eta konparazioa adierazten dutela esan ondoren: “Horrelako egitura simple bat (axalean hain ximple agertzen zaiguna) agertzen bazaigu, moduzkoa dela esan genezake, baina baita baldintzazkoa ere, noski”.

Ondoren, mota horretako perpausak sakonago aztertzeke asmoaz, ondoko adibidea emango dugu, GOENAGAK ez bezala, hizkuntz maila teknikoaren adibidea aukeratu dugularik:

(12) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz bezala jokatuko dugu*.

Autore honen ustez, mota honetako perpausen azpian, hurrengo hau legoke:

(12bis) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz jokatu-ko genukeen bezala jokatu du.*

Aurreko perpausetan segitu dugun arrazonamendu bera erabilirik, hurrengo perpausak proposa genitzake egitura sakonerako:

(12a) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz, horrela jokatu-ko genuke.*

(12b) *Horrela jokatu du.*

Ikus daitekeenez, aurreko kasuetan gertatu zaigun bezala, moduzko adizlagun funtzioa duten bi izen-sintagma errepikatu dira, ezberdintasun bakarra perpaus matrizean txertatu nahi dugun perpausaren baldintzazko izaeran datzalarik. Beraz, erlatibizazio-transformazioa beti bezala ezarririk:

→ (12ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[_{P_1}[Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz horrela jokatu-ko genukeen]_{P_1} horrela]_{IS} jokatu du]_P$.

→ (12ⁱⁱ) $* Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz \emptyset jokatu-ko genukeen horrela jokatu du.$

→ (12ⁱⁱⁱ) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz jokatu-ko genukeen bezala jokatu du.*

Amaitzeko, errepikaturiko aditza ezabatuz:

→ (12) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz $\emptyset\emptyset$ bezala jokatu du.*

Aurreko adibide horretan, ez dago aurrerago joaterik, baina beste kasu batzutan, posible da adizki hipotetikoa ezabatzea. Ikus ondoko adibidea:

(13) *Teleobjektibo batez begiratuko bagenu bezala ikusten du.*

Kasu horretan, posible da adizki hipotetikoaren elipsia:

→ (13ⁱ) *Teleobjektibo batez bezala ikusten du.*

Nabaria da (13) adibidean *teleobjektibo batez* ISak dituen ezaugarri semantikoek batetik eta bestetik *ikusi/begiratu* aditzek kasu instrumentala-ekin izan lezaketen nolabaiteko subkategorizazioa, istilu honetan (eta gutxienez perpaus honetan) kontutan hartzeko faktoreak direla.

Lerro berean, baina, Axularrek dituen zenbait *absolutibo mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma + bezala* egitura duten zenbait perpaus, honelako elipsien bidez azal daitezke:

Bekhatua beretakotzen, eta natural bezala errendatzen du (AX.070.31).

Perpaus honen azpian hurrengo hau dagoela pentsa dezakegu:

..., *eta natural balitz bezala errendatzen du.*

Aurreko hori, kontutan hartu behar dugu *absolutibo mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma* + **bezala** egiturarako esan duguna nonbait aldatzeko: Bestelako lan batetan ikusteko dugun atribuzio eta *bezala / modura* direlakoan arteko harremana alde batera utzirik (ikus 10 sarrera orokorra), egitura hori zenbait kasutan adizki hipotetiko baten elipsiaz sortu dela onar daiteke, horrela izanik azken finean konparaziotzat jo litekeelarik.

Hala ere, beste kasu batzutan, ezinezkoa da Axularren perpausak mekanismo horren bidez azaltzea:

Zeren non da giristinorik, giristino bezala bizitzen denik (AX.093.12).

Adibide honetarako, nekez asma genezake aurrekoan gauzaturiko parafrasia: Perpausaren lehenengo zatian giristinoei buruz mintzatu delarik, bigarren partean *giristino balitz bezala* egitura sakona, anormala izango litzateke maila semantikoan. Nolabaiteko parafrasia edo eta egitura sakona egokitzeotan, *giristinoek bizi behar duten bezala* edo antzekoa behar litzateke. Geroago prozedimendu sortzailea ezartzeko, ordea, arazoak leudeke, soilik arbitrarioki ken baikenezake ergatibo-marka.

Adibide soila aurkeztu badugu ere (adibide berezi samarra: giristinoaren izaera / giristinoaren bizitza), ez dugu uste kontu marginala denik, eta behin baino gehiagotan esan ere, mota honetako edukin semantikoa *mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma* + **modura** eta abarreko egituren bidez modu garbiagoan adieraz daitekeela esan behar dugu.

Edonola, eta laburtuz, euskararen *adizki hipotetikoa* + *-(e)n* + **bezala** eta bestelako hizkuntzen pareko egiturak ere, maila semantiko/pragmatikoan behintzat, konparatiboak direla esan daiteke. Prozedimendu sortzaileak, beste *bezala* guztien antzera lor daitezkeela iradoki digu, zenbait kasutan errepikaturiko elementu batzu elidi daitezkeelarik.

12.08. **Bezalako duten perpaus konparatiboak**

Autore guztiak, bat etorri dira *bezalako* juntagailua sailkatzeko orduan, berari buruz soilik aipu laburrak egin badituzte ere. Hona hemen aipu horietariko batzu:

ALTUNAK (1979), izena laguntzen duenean *bezala* adberbioak hartzen duen forma adjektibaltzat jo du *bezalako* juntagailua. ITHURRYK (1979) ere, berdintasunezko konparatiboak eratzen dituzten adjektibo erlatiboan artean sailkatu du *bezalakoa*, *bezanbatekoarekin* batera. GOENA-

GAk (1980), halaber, agian zehazkien, ondokoa azaldu du *bezalako* juntagailuaz: “*Bezala* daraman perpausa aditzlaguntzat eman dugu eta aditzlagun guztiek *bezala*, *-ko* atzizkia har dezake. Orduan, dakigunez, izenlagun bihurtzen zaigu”.

Ikuspegi morfologikotik hain erraza den azalpena (Alg + *-ko* = Ilg), zailago gertatuko zaigu sorrera-mekanismoaz arituko garenean. Izan ere, *bezala* erabiltzean modua konparatzen dugun bitartean, *bezalako*aren kasuan, itxuraren eta agian izaeraren berdintasuna adieraziko dugu. Hori dela eta, egitura sakonetik bertatik guztiz ezberdinak diren perpausak izango dira *bezala* eta *bezalako* dutenak, eta ez *bezala* adberbioa dukeen perpaus baten azalerako egitura buruturiko zenbait transformazioen emaitza.

Bezalako juntagailua erabili ahal izateko, egitura sakoneko subjektu-funtzioa duten bi absolutibo-sintagmez gain, atributu-funtzioko beste bi sintagma (adjektibal) erreferentzikide behar izango dira, sakoneko bi perpausak eredu atributibo arruntekoak izanik:

Esate baterako, (14) adibidearen azpian, ondoko bi perpausak leudeke:

(14) *Artropodo hauen kutikula*, beste artropodoena bezalako da.

(14a) *Artropodo hauen kutikula*, horrelako da.

(14b) *Beste artropodoena*, horrelako da.

Eta beti *bezala*, erlatibizazio-transformazioa erabiliz:

→ (14ⁱ) p_0 [**Artropodo hauen kutikula*]_{IS}[p_1 [*beste artropodoena horrelakoa den*]_{p1}, *horrelakoa*]_{IS} *da*]_p.

Ondoren, errepikaturiko izen-sintagma ezabatuz:

→ (14ⁱⁱ) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena* \emptyset *den horrelakoa da*.

Amaitzeko, forma adjektibal absolutua erlatiboaz ordezkatur,

→ (14ⁱⁱⁱ) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena den bezalako da*.

Aurreko perpauseren atzizkia errepikaturik egonik txertatuarena eza-*ba* dezakegunez, jatorrizko perpausa lortuko dugu.

→ (14) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena* \emptyset *bezalako da*.

Puntu honi bukaera emateko, *bezala* juntagailuaz esan duguna errepikatzea besterik ez zaigu falta, *bezalako* juntagailua konparaketa orokorra adierazten dutenetarikoak izanik esparru semantiko murriztuagoaz aritu nahi dugunean *bezain* + *adjektiboa* egitura erabili beharko dugula alegia.

Gaztelerrari dagokionez, hizkuntza horri buruz mintzatu garenean profilatu ditugun eremu semantikoen artean, berdintasunezko konparati-boetan eta zehazkiago, kualitatezkoetan sailkatu direnei, hau da, *tal como* edo *como* juntagailuen bidez eratzen direnei dagokiekeela esan dezakegu.

12.09. *-(e)n + modu / era / gisa + adlatibo, inesibo edo instrumental-marka*

GOENAGAk (1980) *perpau* erlatiboa + *bezala* delako egitura azaltzeko erabiliriko mekanismoaren antzeko bat erabili du *erlatiboa + erara* delako egituraren sorrera aztertu duenean. Baina zehazki behatuz gero, azkeneko mekanismo hori zeharo berdina ez dela antzemango dugu.

Hasteko, egitura sakonean errepikaturik dagoen adizlaguna, adberbio konparatibo absolutua izan beharrean, izen-sintagma arrunta izango da eta izen arrunta izanik erlatibizazioa berez onartzen duenez, ez dugu aurreko perpausetan burutu behar izan dugun adberbio absolututik adberbio erlatiborako transformazioaren beharrik izango.

(15) *Guk, ikertzaile-talde horrek aztertu duen erara aztertuko dugu fenomenoa.*

Azalerako perpauserako, hurrengo egitura sakona proposa dezakegu:

(15a) *Ikertzaile-talde horrek, fenomenoa era batetara aztertu du.*

(15b) *Guk, era horretara aztertu dugu fenomenoa.*

Erlatibizazio-transformazioa aplikatuz:

→ (15ⁱ) $_{Po}[*Guk]_{IS}[Ikertzaile-talde horrek fenomenoa era batetara aztertu duen]_{P_1} era horretara]_{IS} aztertu dugu fenomenoa]_P.$

→ (15ⁱⁱ) *Guk, ikertzaile-talde horrek fenomenoa \emptyset aztertu duen erara aztertu dugu fenomenoa.*

Eta *fenomenoa* izena errepikaturik egonik ezaba dezakegunez:

→ (15ⁱⁱⁱ) *Guk, ikertzaile-talde horrek \emptyset aztertu duen erara aztertu dugu fenomenoa.*

Modu berean azal daiteke, jakina, *modu* eta *gisa* izenen kasua, eta baita eramango dituzten adlatibo, inesibo edo instrumental-markak: Oro-korki, berdintasunezko konparaketa modalaren esparrua, noski.

Arlo honi bukaera emateko, hauxe gaineratu behar diogu: Ezaguna denez, euskal erlatibo murriztailea ordenaren inguruko gogoetak alde batera utzirik, adizki jokatuari azken finean genitibo-markatzat jo litekeen *-(e)n* atzizkia lotuz gauzatzen da. Edozein erregistrotan, baina, badakigunez, *-(e)neko* atzizkia jarri ohi da zenbait kontestu morfosintaktiko ezaguetan, horrelako kontestuetan gertatzen direneko guztietan ez bada ere.

Lehenengo atzizkia, perpaus menperatuaren izen-sintagma erreferentzikide ezabatu baino lehen zuen kasu-marka absolutibo, ergatibo edo datiboari dagokionean erabiltzen da (autore guztien arauera problemarik gabe erlatibiza daitezkeen ISak GOENAGA (1980)), izen-sintagma hori ezabatzeagatik galduko den marka hori, aditzean errepikatuta egonik berreskuragarria baita:

(16) *Etologia deritzon Biologiaren atalak, animalien jokaera aztertzen du* (datibo-marka galdu da).

Perpaus menperatuaren izen-sintagma erreferentzikideak zuen kasu-marka inesibo, adlatibo, elatibo edo instrumentalari dagokionean, zenbaitetan menperatuaren adizkiaren arauera ondoriozta badaiteke ere, anbiguitate-kasuak gertatzen dira sarri askotan: OYHARÇABALEk (1986) bere artikulu batetan jaso duen GOENAGA eta DE RIJKen eritzia kontutan hartuz, hizkera hertsian behintzat ezin erlatiba daitezkeen ISak dira aipaturiko kasu-markak eramaten dituztenak. Badago hizkera arruntetan baina, honelako egoera morfosintaktikoetan *-(e)n* jarri barik *-(e)neko* jartzeko nolabaiteko usadio, orokorra ez bada ere. Aipaturiko desanbiguaioak ekiditeko, usadio hori, gutxienez maila teknikoan norma bihurtzea komenigarria dela dirudi ETXEBARRIAk (1978) esandakoaren arauera.

(17) *Mota horretako intsektuak infekta dezaketeneko lekua murriztua izaten da* (inesibo-marka galdu da).

Aurreko adibidean hain zuzen ere, *-(e)n* / *-(e)neko* oposaketa beste kasu batzutan baino ere garrantzitsuago gertatu da, *infekta dezaketen aldia* igorritz gero infektatzen dena bizidun bat izan gabe lekua dela pentsa bailezake irakurleak gaiaren inguruko aurrezaguerarik izan gabe behintzat.

Bestalde, ALVAREZek (1974) adieraziriko lau deklinabide-kasuen taldeetatik bigarrenekoak kontsideratuz (asoziatibo, destinatibo, kausatibo eta noski, genitiboa), ezin erlatiba daitezkeela ikus daiteke OYHARÇABAL (1986) D.RIJKen eritzia berrikusiz, galduriko kasu-marka zeharo berreskuragaitza baita.

-(e)n + modu / era / gisa + adlatibo, inesibo edo instrumental-marka motako egiturakoei dagokienez, garbi dago ezabatzen den izen-sintagmak adlatibo, inesibo edo zenbait kasutan instrumentalari dagozkien kasu-markak eramango dituela, eta beraz, erlatiboa eratzeko *-(e)neko* atzizkia eskatuko duela.

Hala ere, hurrengoak hartu behar ditugu kontutan, nonbait kasu konkretu honetan *-(e)neko* atzizkiak eskaini lezakeen desanbiguaioa horren beharrezkoa ez dela antzemateko: Alde batetik, errepikaturiko izen-sintagma kasu berean egonik, perpaus menperatuarena ezabatu ondoren ere, kasu-marka perpaus nagusian mantendu egingo da eta berorrek,

eragin nabaria izango duke informazioaren deskodifikazioan besterik ez bada ere; bestalde ere, beraien esangura semantikoaren zati handia galdua izanik, nolabaiteko klitxe bihurtu direnez, zentzu bakarreko deskodifikazioa dute, *-(e)neko* atzizkiaren agerpenarekiko independentea hain zuzen eta izen modura “sentitzen” ez deneko neurrian, gogor samar gerta daiteke *-(e)neko* atzizki osoa. Horrela ba, eta iskanbila honen adierazle modura, *-(e)n(eko)* notazioa erabil liteke kasu hauetarako.

(18) *Argi-energia, pigmentuek eskuratzen dute, absortzio espektruen frogatzen duten modura.*

Edozein kasutan ere, aurretik aipatu den erregela orokorra onartu nahi izatekotan, hau da, galduriko kasu-marka aditzarekiko komunztadura duten hiruretarikoa ez denean, *-(e)n* erabili gabe beti *-(e)neko* erabilzeko erabakia, egokia izan liteke: Deskribatu izan ditugun azken kasu hauetan izen horiek oso edukin semantiko ahula izanik eta beraz ia baliabide gramatikal hutsa izanik anbiguitate-arazorik ez duten arren, askoz ere ugariagoak dira konparaburu horiek edukin semantiko osoa duteneko kasuak eta hauetan *-(e)neko atzizkiaren funtzio desanbiguatzaileria frogaturik dagoelakoan gaudelarik, errazago bide da kasu guztietarako -(e)neko atzizkia hautatzea*. Ikus bedi, dena dela, 12.15 saila.

Edonola, ez da ahantzi behar *-(e)n* / *-(e)neko* oposaketarekiko paralelismoan, nonbait, konparazioa / ez-konparazioa dugula esan genezakeenik.

(18ⁱ) *Argi-energia, pigmentuek eskuratzen dute absortzio-espektruen frogatzen duteneko moduan.*

12.10. Izen-sintagma + genitiboa + modura / erara / gisara

12.01 puntua itzulirik, *-(e)n* + *bezala* motako perpausai dagokienez, errepikaturiko elementuak ezaba daitezkeela esan eta areago, aztertu dugula gogoratuko dugu. 12.09an azterturiko perpaus-mota horiei dagokienez, ez ditugu inoiz *erara* eta antzeko segmentuak izen-sintagma, partizipio, adberbio edo aditz-izenari zuzenki loturik aurkituko. Horren arrazoa, partikulen beraien izaeran datza, *bezala* nolabaiteko juntagailu erlatiboa izanik, gainerakoak perpaus erlatiboari betiko moduan loturiko izen-sintagmak baitira: Izen-sintagma izanik, soilik izenlagunari lot dakizkioke; hori dela eta, genitiboan (edo delimitatiboan) deklinaturiko izenari lotzeaz gain, nonbait izenlagun berbaltzat jo genezakeen *adizki jokatua* + *-(e)n* egiturarekiko enklitiko modura ager daitezke, baina ez aditz-izen edo partizipioarekikoa:

(18) *Zooideoak, kalkareoak eta tubiziformeak izango dira trepostomatuenen modura.*

Izan ere, GOENAGAk (1980) proposaturiko formula kontutan hartuz,

$$\text{Ilg} \rightarrow \left[\begin{array}{l} \text{IS} + \text{-(e)n} \\ \text{Alg} + \text{-ko} \\ \text{P} + \text{-(e)n} \end{array} \right]$$

erlatiboaz zein genitiboaz eraikitako bi esaldi mota horien artean dagoen ezberdintasun bakarra izenlaguna gauzatzeko erabili den bidean datza.

Puntu hau amaitu baino lehenago, 12.08 puntuan azaldu dugunaren analogiaz, ondokoa emango dugu aditzera: *Erara*, *gisara* edo *modura* duten perpausak, adizlagun funtzioa dutelarik, koerlazio konparatiboa gauzatu baino lehenago egitura sakonean ditugun perpausak atributiboak direnean, partikula horiei esleitzen dakizkiekeen izenlagunak erabili beharko ditugu, hau da, *erako*, *gisako* eta *moduko* hurrenez hurren:

(20) *Gasteropodoetako arraultzeen garapenaren hasiera, beste moluskuenaren modukoa izaten da.*

(21) *Arren hormona sexuak eragiten dituzten antzerako ekintzak daukate talde honetakoek.*

(22) *Horren gisako arrazoi batzurenatik sortu zen.*

Azkenik, azpimarratzekoa dugu izenlaguna + *erara* / *modura* / *gisara* egitura hau, eta bestelako lan batetan aztertzeko dugun *absolutibo mugagabearen deklinaturiko izen-sintagma* + *erara* / *modura* / *gisara* funtzio bereko egiturak inola ere ez direla.

12.11. *Bezain* / *beste*, *bezainbeste*

Bezala eta *bezalako* juntagailu konparatiboak aurkeztu ditugunean, gazteleraren *Esbozo...* delakoan profilatutako eremu semantikoetatik euskal *bezala* eta *bezalako* direlakoek zeintzu bete dezaketen ikusi dugu: Modua eta kualitatea adierazteko direla behatu dugu, alegia. Berdintasun-konparaketaren esparruko beste perpausak eraikitzeko, hala *bezain*, *bezainbat*, adina eta beste konparatibo erlatiboak, nola *honen*, *horren*, *hain* eta *honenbeste*, *horrenbeste*, *hainbeste* eta *hainbait* serieetako juntagailu absolutuak erabil daitezke.

Puntu honi dagokionez, euskal autoreak, bat etorri dira nolabaiteko sailkapena egiteko unean. Esate baterako, ALTUNAK (1979), aurretik aipatu dugunez, adberbio konparatiboen artean, absolutuak eta erlatiboak bereiztu ditu: Lehenengok, konparaketa-terminorik behar ez dutenez sintagma baten hasieran agertzeko posibilitatea izanik, bigarrenak konparaketa-terminoa behar dute eta ezin ager daitezke inola ere sintagma-

-hasieran. Beste modu batetara esanez, *bezain(bat)* esta *beste*, konparazio-terminoarekiko enklitikoak dira.

Gaztelerekekiko baliokidetasunaz mintzatu denean, bestalde, absolutuak, gaztelerearen *tan* partikularekin parekatu ditu, erlatiboak *tan como* edo *tanto como* egiturei egokitu dizkielarik. Halaber, ager daitezkeeneko kontestuen arauera, kuantitatibo izena esleitu dizkie *bezain / honein, horrein, hain* seriekoei eta kuantitatibo *bezainbat / hanbat* seriekoei, lehenengo atzean adjektibo edo adberbioa aurkituko dugun bitartean, bigarrenen atzean soilik esplizitaturiko edo esplizitatu gabeko izena ager daitekeelarik.

Sailkapen hori eta *Ezbozo...* lanean gaztelerezko konparatiboak buruz egindakoa, ezberdin samarrak direla esan dezakegu, bertan kualitatearen konparazioan *tal cual (como)* partikulaz eraturikoak soilik, hots euskaraz *bezalakoa* partikula hartzen dutenak sailkatu baitituzte, beste konparaketa guztiak (*tanto cuanto, tanto como, tan como*) kantitatearen arloan sartu dituztelarik.

Edozein modutan ere, euskal bibliografia ALTUNAREN sailkapenarekin bat etorri dela eta, berorren terminologiari jarraituko gatazka gu ere. GOENAGAK (1980), ALTUNAK egindako modu berean sailkatu ditu egitura horiek, zenbait zehaztasun gehiago emanez.

Azken autore honek adierazi duenez, adjektiboaren graduatzailearen lekua betetzen duen perpaus txertatua litzateke *-(e)n + bezain* motakoa, *-(e)n + adina, beste edo bezainbeste* motakoa, ordea, zenbatzaileen lekua beteko duelarik.

Perpaus konparatibo horien sorrera-mekanismoari dagokionez, egitura sakonean leudekeen bi perpausetan, graduatzaile bera duten adjektibo-funtzioko bi sintagma izango dira errepikaturikoak, egitura ere bera izango delarik. Adibidez: *IS + adjektibo-funtzioko IS + aditza*.

Dena dela, hala sintagma atributiboan dagoen adjektiboa, nola perpausen subjektua, ez dira zertan berdinak izan behar egitura sakonetan. Ikus dezagun, adibide gisa, ezberdintasun-gradurik altuena aurkez dezakeen perpausa, hau da, bai subjektua eta bai adjektiboa desberdinak direneko kasua:

(23a) *Itsasoa hain egonkorra da.*

(23b) *Lehorra hain aldakorra da.*

→ (23ⁱ) $P_0[*Itsasoa]_{IS} [P_1 [Lehorra hain aldakorra den]_{P_1} hain aldakorra]_{IS} da]_{P_0}$.

Errepikaturiko graduatzailea ezabaturik eta juntagailu konparatibo absolutua erlatiboaz ordezkaturik:

→ (23) *Itsasoa, lehorra \emptyset aldakorra den bezain egonkorra da.*

Kasu horretan, aurrerago ezin joan badaiteke ere, adjektibo bera duten perpausen kasuan, posible gertatuko da zenbait elementuren ezabaketa ere. Adibidez, (23)aren ordean (24koa) izango bagenu:

(24) *Lehenengo metodoa, bigarrena zehatza den bezain zehatza da.*

Kasu horretan, errepikaturiko adjektiboa ezaba genezake:

→ (24ⁱ) *Lehenengo metodoa, bigarrena \emptyset den bezain zehatza da.*

Eta baita errepikaturiko aditza ere ezabatuz,

→ (24ⁱⁱ) *Lehenengo metodoa, bigarrena \emptyset bezain zehatza da.*

Bestalde, ALTUNAK (1979) adierazia duenaren arauera, *bezain* partikula adberbioari ere, lot dakioke. Funtzioari dagokionez, horrek ez digu arazorik planteiatuko, graduatzaileak adjektiboari zein adberbioari modu berean erants baitakizkieke (ez baita hau lekua zenbait euskal egiturak adberbioa/adjektiboa oposaketari azaldu dizkion arazoez aritzeko).

Hala ere, egitura sakoneango perpausari eskatu behar dizkiegun baldintzei dagokienez, ezberdintasunak azalduko dira: bide horretatik, *-(e)n + bezain + adberbioa* motako perpaus txertatuak atributuaren funtzioa bete gabe adizlagunarena beteko du, eta egitura sakoneko perpausak, atributiboak ezezik, beste edozein sailletakoak izan baitaitezke:

(25a) *Artropodoak hain ondo moldatu dira lehorrera.*

(25b) *Ugaztunak hain ondo moldatu dira lehorrera.*

→ (25ⁱ) p_0 [*Artropodoak]_{IS} [p_1 [Ugaztunak lehorrera hain ondo moldatu diren]_{p1} hain ondo]_{IS} moldatu dira lehorrera]_p.

(*Hain ondo* delakoa, IStzat jo dugu analisi honetan, lan honen gunetik urrun egingo gintuzketen kontsiderazioetan ez sartzearen).

→ (25ⁱⁱ) *Artropodoak, ugaztunak lehorrera $\emptyset \emptyset$ moldatu diren hain ondo moldatu dira lehorrera.

→ (25ⁱⁱⁱ) Artropodoak, ugaztunak lehorrera moldatu diren bezain ondo moldatu dira lehorrera.

→ (25) *Artropodoak, ugaztunak $\emptyset \emptyset$ bezain ondo moldatu dira lehorrera.*

Lehenago, konparaketa orokorren kasuan adizlagun-funtzioa betetzen zuten perpausak, *bezala* moduzko adberbioaz lotuta egonik, modua besterik ezin adieraz bazezaketen ere, (25) saileko perpausak edozein motatako adberbioa eraman dezaketenez, gertaeraren edozein zirkunstantzia konpara dezakete. Ikus bitez hurrengo adibideak:

(27) *Lehenengo hipotesia, bigarrena bezain berandu formulatu zen.*

(28) *Ikertzaile horiek, gu bezain hurbil egon dira arazoaren ebazpenetik.*

Puntu honi amaiera emateko, zenbatzaile-funtzioa betetzen duten *-(e)n + bezain (beste) / adina* motako egiturez arituko gara. Esana dugunez, kasu honetan, izenari lotuko zaio erlatiboaren ondarra, lortuko den perpaus txertatua edozein ISren parekoa izango delarik: hots *zenbatzailea + izena* motakoa.

Eta sorrera-mekanismoari dagokionez, (29)aren motako perpausak izango genituzke egitura sakonean.

(29a) *Lehenengo laginean, horrenbeste ale bildu dugu.*

(29b) *Bigarrenean, horrenbeste ale bildu dugu.*

→ (29^a) p_0 [**Lehenengo laginean*]_{IS}[p_1 [*bigarrenean horrenbeste ale bildu dugun*]_{P₁}, *horrenbeste ale*]_{IS} *bildu dugu*]_P.

→ (29ⁱⁱ) **Lehenengo laginean, bigarrenean \emptyset bildu dugun horrenbeste ale bildu dugu.*

Juntagailu absolutua erlatiboaz ordezkatzuz:

→ (29ⁱⁱⁱ) *Lehenengo laginean, bigarrenean bildu dugun beste ale bildu dugu.*

→ (29) *Lehenengo laginean, bigarrenean $\emptyset\emptyset$ beste ale bildu dugu.*

Batzutan, *beste* zenbatzailea duen izen-sintagmaren izena, ezagun dugu kontestuagatik eta ezaba dezakegu. Horrela, laginez mintzatzen ari bagara, hurrengo esan dezakegu (29) perpausaren ordeez:

→ (29bis) *Lehenengo laginean, bigarrenean beste \emptyset bildu dugu.*

Amaitzeko, *bezalaren* kasuan gertatu deneko modu berean, *IS + -ko* → *Ilg* berridazketa-erregela erabiliz, egitura sakonean perpaus atributiboak ditugunean (*bezain*)*bestekoa* edo *adinakoa* jarri beharko dugu azalerrako egituran. Hona hemen adibide batzu:

(30) *Lehenengo multzoak, bigarrenak bezainbeste unitate dauka.*

→ (30ⁱ) *Lehenengo multzoak, bigarrenak bezainbeste \emptyset dauka* (unitatez ari garela ezagun dugunean).

Kontzeptu bera adieraz genezake egitura atributiboa erabiliz, baina izen-sintagmari atributu-funtzioa esleituz:

(31) *Lehenengo multzoa, bigarrena bezainbeste unitatekoa da.*

→ (31ⁱ) *Lehenengo multzoa, bigarrena bezainbestekoa da.*

Ikus bitez, bukatzeko orain arte euskal konparaketaren esparruari buruz bibliografiaren baitan aurkituriko guztiak eta baita gure ekarpen txikiak osoturiko laburpena, 12 koadroa.

K O N P A R A K E T A	O R O K O I R A	Konparaketa modala	<p>-Juntagailu absolutuak <i>Konela, horrela, bala</i></p> <p>-Juntagailu erlatiboak <i>Besala</i> ⇒ $\left. \begin{array}{l} -(e)n \\ ad. hipot. \\ IS \\ partisip. \\ adverbios \\ aditziens \end{array} \right\} + Besala$</p> <p><i>I + ex-besala</i></p> <p>-Bestelako baliabide batzu</p> $\left \begin{array}{l} -(e)n(eko) \\ Ilg. \end{array} \right + \left \begin{array}{l} modu \\ era \\ gisa \\ lege \\ molde \\ antas \end{array} \right + \left \begin{array}{l} ines. \\ adlat. \\ inst. \end{array} \right $
		Konparaketa adjektibala	<p>-Juntagailu absolutuak <i>Konelako(a), horrelako(a), balako(a)</i></p> <p>-Juntagailu erlatiboak</p> $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ adverbios \end{array} \right + Besalako(a)$ <p>-Bestelako baliabide batzu</p> $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ Ilg. \end{array} \right + \left \begin{array}{l} moduko(a) \\ erako(a) \\ gisako(a) \\ antzeko(a) \end{array} \right $
	E N - O R O K O I R A	Konparaketa kualitatiboa	<p>-Juntagailu absolutuak <i>Konen, horren, bain</i> + $\left. \begin{array}{l} adjektibos \\ adverbios \end{array} \right\}$</p> <p>-Juntagailu erlatiboak</p> $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ partisip. \\ adverbios \end{array} \right + \left. \begin{array}{l} besain \\ besin \end{array} \right\} + \left. \begin{array}{l} adjektibos \\ adverbios \end{array} \right\}$
		Konparaketa kuantitatiboa	<p>-Juntagailu absolutuak <i>Konenbeste, horrenbeste, bainbeste</i> + $\left. \begin{array}{l} izens \\ \sigma \end{array} \right\}$</p> <p>-Juntagailu erlatiboak</p> $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ adverbios \end{array} \right + \left. \begin{array}{l} besainbeste \\ beste \\ adina \end{array} \right\} + \left. \begin{array}{l} izens \\ \sigma \end{array} \right\}$

1.2.-koadroa: Euskal konparaketaren esparruko *besala* eta zenbait baliabide

12.13. **-(E)nez atzikia duten perpaus modalak**

13 sailean ikusteko dugun *corpusa* aztertzea baino ez dugu behar *bezala* juntagailua aurreko puntuetan aipatu diren kontestuetatik kanpo ere erabili dela ikusteko. Beha dezagun, esate baterako, hurrengoa:

(32) *A. Szent Gyorgyi-k dioen bezala...*

Mota honetako perpausetan moduzko kutsua antzeman badezakegu ere, ez dugu inondik konparaketarik aurkituko. AZKUE (1923) irakurtzea, *bezalaren* delako erabilera hori zalantzatan jartzeko beste izan daiteke: Beraren ustez, *como* orokorki *según* delakoaren zentzuan erabiltzen da eta *-(e)nez* atzikiaren bidez itzuli behar genuke (*esan nuenez*), *bezala* eta beraren aldakiak, *de la misma manera que* adierazi nahi dugunerako utziko ditugularik: *Irakurtzen danez (sic) = Según y como se lee, neskati-leak dinoanaz (sic) = Según y como dice la muchacha.*

VILLASANTEk (1979) ere, *-(e)nez* atzikia erabiliz itzuli du *como*, *según* direlakoan zentzuan: *Entzuten denez = Como se oye, Diotenez = Según dicen.* Beraz, 11 sailaren eskeman profilatu ditugun erremu semantikoei dagokionez, konparatiboekiko intersekzioetik kanpo geratu diren moduzko egituren arloan kokatu behar ditugu mota honetakoak: Gogora daitekeenez, *bezala* duten egiturek, ikuspegi semantikotik modua adierazten badute ere, azken finean modu horren konparaketa adierazten dute; *-(e)nez* honen kasuan, aldiz, gazteleraz *como* bera erabili arren, ez dago maila semantiko/sintaktikoan nolabaiteko konparaketari legezkiokkeen bi terminoak kontsideratzerik.

Halaber, *-(e)nez* atziki konjuntiboaz eremu osoa estaliko ez dugula esateko beharra dago, gazteleraz *segun y como* delakoa erabiltzen deneko kasuetan adibidez, euskaraz *genitibo-marka + arauera* erabiliko delarik.

Alderantziz ere, *-(e)nez* atziki honek dituen zenbait erabilerak ez bide du *como* juntagailudun parekorik: *datibo-marka + dagokionez* (nonbait klitxetzat jo daitekeena) eta askoz ere gutxiagotan erabiltzen diren *doakionez*, *datorkionez*, *datxekionez...* Edozein kasutan ere, ez dirudi azken mota hauetako egiturak *bezala* dutenekiko intersekzioan daudenik, eta lan honetarako planteiatu ditugun helburuetatik urrun samar geratu dirateke.

-(E)nez /-(e)n + bezala dialektika honi dagokionez, erregela zehatz bakarra AZKUErean (1925) aurkitu badugu ere, *bezala* juntagailuaren definizio eta ezaugarriak behin eta berriro azaldu direnez (ikus 121 saila), azpian konparaketarik ez duten perpausetan erabiltzea juntagailu horren izaera ahaztea dela ondoriozta daiteke erraz, eta beraz, *-(e)nez* juntagailua erabili beharko da *-(e)neko modu berean* delakoan oinarrituriko parafrasia onartuko ez duten kasu horietan.

Gure *corpusean* autore gehienek, *bezala* erabili dute gehien bat aipatua dugun konparaketarik gabeko modu-egitura horiek gauzatzeko orduan. Ikus zenbait adibide:

(33) *Irudian ikusten den bezala,...*

(34) *Geroago ikusiko dugun bezala,...*

(35) *Esan dugun bezala,...*

(36) *Hala ere, beste solutu batzuk, lehen esan dugun bezala, mintza ezin dute zeharkatu.*

Gure eritziz, beste modu honetara, itzuli behar izan ziratekeen perpaus horiek edo gutxienez, horrela zehatzago geratu ziratekeelakoan gaude.

(33ⁱ) *...ikusten denez,...* edo, gure ustez eukal aspektua hobeto errespetatuz, *...ikus daitekeenez,...*

(34ⁱ) *...ikusiko dugunez,...*

(35ⁱ) *...esan dugunez,...*

(36ⁱ) *...lehen esan dugunez,...*

Ikus daitekeenaren arauera, goiko perpaus horiek, nekez onar dezakete *-(e)neko modu berean* parafrasia, zeren inolako konparaziorik isladatu gabe, autore baten esanak edo behaketa baten ondorioak estilo zuzenean txertatzeko erabili baitira. Nolabaiteko ordezkaketa onartzekotan, *genitibo-marka + eritziz, ikuspuntutik arloan* eta antzekoak egokitu behar litzaizkieke *-(e)nez* juntagailua eskatuko duten egiturei.

12.14. Perpaus kausaletango *-(e)nez* atzikiaren erabilera

Atziki hau aurreko sailean azaldu dugun moduari dagokion arlo semantikotik at ere hedatua dela esan behar da, 11 sailaren eskeman kausal modura aipatu dugun esparru semantikoraino hain zuzen ere.

Gaztelera *como, como que* eta *como quiera que* direlakoak erabiliz gauzatzen diren egiturak, euskaraz, *-(e)nez* atziki konjuntiboa erabiliz itxuratu ohi dira. Mota honetako perpausak *-(e)la eta* eta *-(e)la eta* parafraziak onartzen dituztela esan behar dugu bukatzeko:

(37) *Elikadura-mota honek nitrogenoaren exkrezioari buruz planteiatzen dituen arazoak aurreko gaian aipaturik daudenez, hemen ezer gutxi gehituko dugu.*

12.15. **Gazteleraz *modo*, *manera*, *medio* + *como* itxura duen subordinazio adjektibala**

Como juntagailuaren subordinazioaren esparruango erabileraren puntuari bukaera emateko, *modo*, *manera*, *medio* edo antzeko sintagma erreferentziala izanik *como* juntagailuaz lotzen diren perpaus erlatiboei euskaraz parekoa bilatzea baino ez zaigu falta.

Mota honetako perpausen aitzindariak, gazteleraz *modo*, *manera*, *medio* taldeko izena bada, euskaraz *-(e)neko* atzizki konjunktiboari loturik joango den izena *modu*, *era*, *gisa* direlakoez osoturiko taldekoa izango dela ondoriozta dezakegu, beti ahortzi gabe kasu honetako substantibo horiek beren edukin semantiko osoa gorde dutela. Bestalde, badakigu erlatibozko perpausetikoa den izenari edozein deklinabide-marka lot dakiokela. Ikus, horrela, ondoko adibideak:

(38) *Artropodoek lehorra kolonizatu zuteneko modua, harrigarria da.*

(39) *Artropodoek lehorra kolonizatu zuteneko moduak, zenbait ondorio berezi ekarri zuen.*

(40) *Mesodermoa eratzen deneko modu horri, teloblastia deritzo.*

Modu berean, bestelako kasu-markak ere aplikatu dakizkieke:

(41) *Lehenengo experimentua burutu deneko eran, zenbait akats detektatu dugu.*

(42) *Lehenengo experimentua burutu deneko eraz, mintzatuko gara orain.*

(43) *Lehenengo prozesua burutu deneko erara itzuliko gara oraingo sail honetan.*

Inesibo-, instrumental- eta adlatibo-marka hauek direla eta, beha bedi beste hauekiko ezberdintasuna:

(41bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eneko) eran egingo dugu gure ikerketa.*

(42bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eko) eraz burutuko dugu guk geuk ere, gurea.*

(43bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eko) erara, bigarrena ere, aurrera eramango da.*

Nonbait ikus daitekeenez, lehenengo taldeko perpausetako erlatiboburuen inesibo-, instrumental- eta adlatibo markak direla bide, *non*, *zertaz* eta *nora* galderei erantzun bide zaie, *era* izenak edukin semantikoa bere osotasunean mantendu duelarik. Bigarren taldekootan, aldiz, *era*

izen horren edukin semantikoa ahuldua edo agian guztiz galdua delarik, 12.09 sailean azaldu dugunez, *-(e)n + bezala* egituratik, oso hurbil daude maila pragmatikoan bederen, eta hiruretan ere, soilik *nola* galderari erantzun zaio, kasu-markak ere deslexikalizatuta daudelarik. Horrela ba, lehenengo taldeko egitura sakonak, hauexek lirateke:

(41a) *Lehenengo experimentua era horretara burutu da.*

(41b) *Era horre(n bai)tan, zenbait akats detektatu dugu.*

(42a) *Lehenengo experimentua, era horretara burutu da.*

(42b) *Era horretaz (era horri buruz) mintzatu gara orain (hain zuzen ere).*

(43a) *Lehenengo prozesua, era horretara burutu da.*

(43b) *Era horretara itzuliko gara oraingo honetan (zehazkiago aztertzeko).*

Kasu guztietan, a-koetan nonbait modua adierazteko konparatibo absolutua den erakusleak hartu duen kasu-marka, adlatiboarena da; b-koetan, galera semantikorik jaso ez duten inesibo-, instrumental- eta adlatibo-adizlagunak eratu dira. Ikus dezagun, bestalde, bigarren taldekoekiko desberdintasuna:

(41bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretan burutu da.*

(41bis-b) *Gure ikerketa ere, era horretan egingo dugu.*

(42bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretaz burutu da.*

(42bis-b) *Guk ere gurea, era horretaz burutuko dugu.*

(43bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretara burutu da.*

(43bis-b) *Bigarrena ere, era horretara eramango da aurrera.*

Oraingo hauetan, ikus daitekeenez, egitura sakoneko bikote bakoi-tzean, kasu-marka bereko adizlaguna agertu da, baina erabiliriko hirurek ere, nolabaiteko modua adierazi bide dute, jadanik esana dugunaren arauera.

13. GURE CORPUS TEKNIKOAREN AZTERKETA

13.0 Laginaren datuak

Ondoko gaztelerak eskain dezakeen eredia eta baita esplizituki euskararen inguruan esan dena ikusi eta gero, lan honen muina bide den

arloraz sartzeko gaude: Jadanik argitaratu diren testu teknikoetan gertatu diren ohitura finkatuak, joerak eta arazoak aztertzeke ditugu, aurreko sailkapen orokorrean (1.2 Eskema) dagoenarekin bat etorri ote diren zehazteko asmoaz, jakina. Bibliografiak eskainitakoan gauzatu dugun sailkapenetik azalduko diratekeenak ere, zer esanik ez, nonbait kokatzen saiatuko gara.

Hona hemen, nonbait interesgarri gerta daitekeelakoan *corpusa* bilzteko hustu diren lan teknikoan zerrenda:

ALTONAGA, K. (1982): *Arthropoda*. U.E.U.

ALTONAGA, K.; P. IGLESIAS, J. I. (1983): *Moluskuak*. U.E.U.

ARIZMENDI, J. M. (1982): *Phormidium laminosum zianobakterio termofiloaren nitrito erreduktasa ihardueraren karakterizazioa*. Tesina.

ASPIAZU, I. (1982): *Faktore batzuen eragina C zitokromo oxidatuek induzitutako lipidoen oxidazioan*. Tesina.

AYARZA, S. (1979): *Koltxizinen efektuak triticales primarioen produzian*. Tesina.

BENITO, J. et al. (1982): *Anelidoak eta talde anelidianoak*. U.E.U.

FULDAIN, M.; ALTONAGA, K. (1985): *Lofoforatuak*. U.E.U.

GOIRIENA, I. (1980): *Ornogabeen zoologia: animalien ezaugarri orokorrak*. U.E.U.

GONZALEZ, E. (1985): *Bizkaiko jatorrizko populazioaren dermatoglifoak*. Tesina.

LEGORBURU, F. J. (1981): *Arraldian dagoen Arion ater (L.) bare arruntaren elikapenari buruzko ikerketak*. Tesina.

LEIOAKO BIOLOGO TALDEA (1979): *Biologia orokorra*. U.E.U.

MARTIN, I. (1982): *Bilboko Abrako zenbait populazio larbario zooplanktonikoren sakabankuntza espazialaren gaineko itsasadarraren emariaren eta mareen eragina*. Tesina.

P. IGLESIAS, J. I. (1982): *Actinia equinaren arnas metabolismoa. Tenperatur eta sasoi-aklimatazioa*. Tesina.

P. IGLESIAS, J. I. (1986): *Carastoderma edule: Hazkuntza eta ugalkuntzaren energi oinarriak*. Tesi dokoralak.

RODRIGUEZ, A. (1981): *Erdiaroko nekropoliko giza hondarren ikerketa antropologikoa*. Tesina.

SALCEDO, I. (1984): *Bizkaiko Aphylophorales ordenaren katalogorako ekarpena*. Tesina.

TXURRUKA, J. M. et al. (1985): *Eboluzioaren norabideak*. Elkar.

TXURRUKA, J. M. et al. (1986): *Eboluzioaren norabideak Unibertsitate-hedakuntzarako koadernoak*. E.H.U.ren argitarapen zerbitzua.

ZUBIAGA, A. M. (1982): *Jaki naturalaz elikaturiko Arion ater (L.) barearen liseri-guruinaren histologia eta histokimika sasoi desberdinetan*. Tesina.

13.1. Adibideen sailkapena

13.1.1. *Bezala*

13.1.1.1. *Corpusa*

(1) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaiztea da.*

(2) *Nahiz adar bitakoak izan (lehenengo kasuan bezala).*

(3) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte, lehen ikusitako harra-pakariak bezala.*

(4) *Hauen salbuespenak, Aelosomatidae familiakoak dira: Oligoke-toak bezala, hermafroditoak dira, baina poliketoen moduan,...*

(5) *Arraultzeen ardatz animal/begetala eta aurre/atze ardatza, elkar-tzutak dira, anelidoetan ez bezala.*

(6) *Egungo gasteropodoetan bezala, organo errenalen hornidura liki-doa, bihotzetiko odola zatekeen.*

(7) *Esofagoa urdailaren atalondora irekitzen da, heste itsua eta ondes-tea bezala.*

(8) *Michaelis-ek, entzima batez, erreakzio katalisatu baten abiadura handiena E/S konplexuaren sortzeagatik balitz bezala adierazi zuen.*

(9) *Lehen bezala konzentrazio altutik baxura egiten da garraio hau.*

(10) *Polisomak, lehen esan bezala, sareskaren mintzei erants dakizkieke.*

(11) *Termo bat (sic) bezala, bi mintz dituzte.*

(12) *Baina heltzen direnean gorri edo hori bihurtzen dira kolore dei-garriz jantziz, jan nazazue esanez bezala.*

(13) *...urte horietako filmea hamar unetan generatuko bagenu bezala, eta geldione horietan aurkitzen ditugun landareei nolakoak diren begira bageunde bezala.*

(14) *...baina, berauen endotermismoa, baldintza zerrepel egonkorretan soilik zen baliogarria, ugaztun eta hegaztiarena ez bezala.*

(15) *Bakterioak eta zianofizeoak talde paraleloak dira, onddoak, ani-maliak eta landareak diren bezalatsu.*

(16) *Karbonoaren zikloan bezalaxe, oxigenoaren zikloaren azalpena oxigenoaren iturriari eta hobiei dagozkien atal nagusi bietan banatuko dugu.*

(17) *Narrastien enbrioiek anfibioenek ez bezala, hiru geruza dituzte: Amnio, corion eta alantoidea, alegia.*

(18) *Esan dugun bezala, hauek ez dira guruin endokrinoetan egiten soilik.*

13.1.1.2. Iruzkinak

A) Gure *corpusean* aurkitu ditugun *bezala* juntagailuaz eraturiko adibide hauei dagokienez, zenbaitetan, zail gertatuko zaigu konparaketaren bi terminoak detektatzea, *bezala* hartu duen perpausa, txertatu modura agertu beharrea (ikus 12.01), *IS + bezala* modukoak agertu dira askotan, baina ez zehazki 12.02 sailean ikusitakoaren arauera. Azter dezagun hasteko, hirugarren adibidea:

(3) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte, lehen ikusitako harrapakariak bezala.*

Perpaus honetarako, hurrengo egitura sakona proposa genezake:

(3a) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte.*

(3b) *Lehen ikusitako harrapakariak, zentzumen-organo garatuak dituzte.*

Egitura sakoneko bi perpaus horiek behatzen baditugu, biak subjektuak izan ezik elementu berdinez osoturik daudela antzeman dezakegu baina lehenengo hurbilketa batetan *zentzumen-organo garatuak* IS biak erreferentzikideak direla pentsa baliteke ere, zehazki horrela ez dela onartu behar bide dugu: Batetik, animali talde bietan zentzumen-organoak badaudela esan zaigu, baina bestetik (eta agian ezaguera estralinguistikoteknikoaren laguntzaz), bi puntu hauek ere baiezia daitezke: Lehenik, eta logika hutsean, talde bakoitzak bere zentzumen-organo propioak ditu eta ez dituzte (absurdoa lizatekeena) zentzumen-organo berberak amankomunean. Bigarrenik, nahiz eta bi taldeek zentzumen-organo garatuak dituztela esan dugun, organoak ez dira zertan guztiz antza berdineko izan behar. Nolabaiteko erreferentzikidetasunik egotekotan, IS horri esleitu zaion ezaugarri atributiboak litzateke (*garatuak*), baina horrek, ez digu betiko mekanismoa hemen errepikatzen baimendu.

Ikus bitez, maila teknikitik kanpoko adibide hauek, gaia konplexu samarra izanik hasiera batetan gauzak erraztearren:

(44a) *Zuk, liburu hori irakurri duzu.*

(44b) *Nik (ere), liburu hori irakurri dut.*

Liburu hori biak erreferentzikideak dira eta agian horren isladapen morfosintaktiko gardenena, erakuslearen presentzia bikoitza da. Horrela

ba, erlatiboranzko mekanismo transformatzaile osoa gauza dezakegu, azalera heldu arte:

(44) *Nik (ere), zuk irakurri duzun liburua irakurri dut.*

Orain, erka dezagun hurrengo kasuarekin:

(45a) *Zuk, liburu bat irakurri duzu.*

(45b) *Nik (ere), liburu bat irakurri dut.*

Kasu honetan, liburu bana irakurri dela adierazi nahi dugu: Beraz, gertaera bien kookurrentzia eta ez, orain arte ikusi dugun bi elementuen arteko korreferentzia, zeren eta norberak irakurri duen liburua, morfosintaktikoki ere modu indeterminatuan adierazi delarik, ez da zertan besteak irakurri duen berbera izan behar. Azken mota honetako sakoneko egiturak egonik, azalera igortzen den perpausa, hurrengoa dela esan genezake:

(45) *Nik (ere), zuk bezala, liburu bat irakurri dut.*

Izen-sintagma erreferentzikiderik egon gabe, *bezala* delakoan oinarrituriko konparaketa guztiei bide dagokien egitura erlatiborako mekanismoa asmatzea, zaila da baina hala ere, edozein hiztunek erlazionatuko lituzke (45) eta hurrengo (45'):

(45') *Nik (ere), zuk (liburu bat) irakurri duzun bezala, liburu bat irakurri dut.*

Ikus bedi bestalde behin baino gehiagotan profilatu dugun mekanismoari legokiokeen egitura sakona:

(46a) *Zuk, horrela irakurri duzu liburua.*

(46b) *Nik, horrela irakurri dut liburua.*

16f (46ⁱⁱⁱ) *Nik, zuk irakurri duzun bezala irakurri dut liburua.*

→ (46) *Nik, zuk bezala irakurri dut liburua.*

(46) perpausa eta (45), itxura morfosintaktikoari dagokionez berdina badira ere edukin, semantikoaren aldetik eta beraz baita hemen profilatu ditugun egitura sakonetan ere, ezberdinak direla antzeman daiteke: Batetik, azken honetan bakarra edo desberdinak izan daitezkeen liburuaren irakurketa-moduaz aritu gara, berdintasun-konparaketa osotasunean gauzaturik. (45)an, ordea, jada dinik aipatua den kookurrentzia bat dugu: Zehaztu gabeko liburu bakar edo biren irakurketarena hain zuzen. Ikuspegi morfosintaktikoari dagokionez, bestetik, honelako analisia gauza liteke lehenengorako.

[*nik*]_{ISerg} [*zuk bezala*]_{Alg} [*irakurri dut*]_A [*liburua*]_{ISabs}.

Bigarrenez, baina, analisi bera irtengo bide litzaiguke, *zuk bezala* sintagma azken finean, kasu bietan baita perpaus modura berridatz daite-

keen adizlaguna. Maila prosodikoan, zer esanik ez, *zuk bezala irakurri dut* eta *zuk bezala / irakurri dut* igorriko lirateke eta berori, seguraski, bi perpaus hauek duten egitura errematiko desberdinei zor zaie, (45)aren esparruan, hots, konparaketa adierazi ez bide denekoan, perpaus modura berridaz daitekeen Alg hori errema (=galdegaia) ezin izan daitekeela dirudi.

Nik, zuk bezala, liburu bat irakurri dut (=kookurrentzia).

Nik, zuk bezala, irakurri dut liburu bat (= kookurrentzia)

baina *nik, zuk bezala irakurri dut liburu bat* delakoa (hots, maila prosodikoan *zuk bezala* eta aditzaren artean pausarik egin gabe), beti ulertuko litzateke konparaketa modal gisan. Beste modu batetara esanez, konparaketa deneko kasuaren Alg hori, elementu errematikoa da halabeharrez, eta konparaketa ez deneko kasuetan, ezin izan daiteke errema.

B) Azter ditzagun beste zenbait adibide:

(4) *Hauen salbuespenak, Aelosomatidae familiakoak dira: Oligoketoak bezala, hermafroditoak, baina poliketoen modura, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Adibide hau konplexua izanik, bi perpausatan desglosatuko dugu:

(4.1) *Aelosomatidae familiakoak, oligoketoak bezala, hermafroditoak dira.*

(4.2) *Aelosomatidae familiakoetan, poliketoen moduan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Dakusagun lehenago (4.1) *adibideak izan lezakeen egitura sakona:*

(4.1a) *A.familiakoak, hermafroditoak dira.*

(4.1b) *Oligoketoak, hermafroditoak dira.*

Aurreko adibide batetan esana denez, ez dugu (4.1a-b) hauetatik azalako egituraraino iristeko mekanismoa finkatzerik izan. Hona hemen, dena dela, soma daitekeen amaiera:

(4.1ⁱⁱⁱ) *A.familiakoak, oligoketoak hermafroditoak diren bezala, hermafroditoak dira.*

→ (4.1) *A. familiakoak, oligoketoak bezala, hermafroditoak dira.*

(4.2) perpausari dagokionez, hurrengo egitura sakona proposa genezake:

(4.2a) *A. familiakoetan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

(4.2b) *Poliketoetan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Kasu honetan, ezaugarriaren jabetasuna, ergatibo-marka duen subjektuari *ukan* aditzaren bidez esleitu gabe, inesiko-marka duen elementuari egokitu zaio *izan* kopula duen egitura atributibo arruntaren bidez. Hau da, (4.2) perpausa, berdin itxuratu zatekeen beste honetara: *A.familiakoek, poliketoen modura, ugalketarako lakain asko dute.*

Bukatzeko, sorrera-mekanismoa alde batera utzirik, hurrengo perpausak lortuko genituzke:

→ (4.2ⁱⁱⁱ) *A.familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoetan asko diren moduan, asko dira.*

→ (4.2) *A.familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoen moduan, asko dira.*

Ikus daitekeenez, igorritako perpausean, *bezala* partikula agertu gabe, *moduan* agertu da. Horretaz, kookurrentzia adierazteko unean, azkeneko partikula hori ere, erabil dezakegula ondoriozta daiteke.

Puntu honetan aurrera eraman dugun analisiaren ondorio hau, *modu* + *inesiboa/adlatiboa* delakoa, kontestu batzutan edukin semantikoa guztiz galdua izanik, baliabide gramatikal huts bihurtu delako hipotesia berrindartzeko argudio sendoa da gure eritziz. Izan ere, kontestu honetan, konparaketa modalaren esparrutik kanpo egonik, aipaturiko partikulak, ez du zirkunstantzia modalekiko harremanik. Susmatzekoa da bestalde, serie bereko partikulek, *host, era, gisa...* modu berean jokatu dutela; hala ere, puntu hori, aurrerago aztertuko dugu, elementu hauei dagokien saillean hain zuzen ere.

C) Azter dezagun azkenik, sail honetako beste adibide bat, lehenengo alegia:

(1) *Akats honen irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaitzea da.*

Kasu honetan, kookurrentzia esleitu zaien bi elementuek, kasu-marka desberdina dute eta bestalde, komen (=pausen) artean txertatu den perpauseren aditza, ez da bat etorri perpaus nagusiarenarekin, azkeneko hau, aurretik aipaturiko adibideetan bezala, atributiboa delarik.

Korapilo honi heltzeko, NADALek (1975), nolabaiteko berrikuspen bibliografikoa eginez eskainiriko zenbait ideia erabil dezakegu. Izan ere, bere aburuz, perpaus guztiak, konpletibodun zein konpletiborik gabekoak, egitura sakonean konpletibodun perpaus konposatua dutela pentsa liteke; horretako aditz nagusia, performatiboa izango da potentzialki eta, perpaus bakuna agertu behar deneko kasuetan, eliditu egingo da. Ildo horretatik, gure oraingo adibidearen egitura sakonean, bi konpletibo dagoela onar dezakegu:

(1a) *Lur ingurunean, irtenbidea iragazkaitzea dela gertatzen da.*

(1b) *Akats horren irtenbidea, iragazkaiztea dela gertatzen da.*

→ *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean irtenbidea iragazkaiztea dela gertatzen den bezala, irragazkaiztea dela gertatzen da.*

Errepikaturiko konpletiboa ezabatuz:

→ *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean \emptyset gertatzen den bezala, irragazkaiztea dela gertatzen da.*

Eta esana dugunaren arauera, nonbait bakar dugun performatiboa (hots, perpaus nagusiarena) ezabatzeko aukera dugu:

(1) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaiztea da.*

Transformazio hau gauzatu aurretik, lehenengo adizkia, errepikaturik dagoenez, beti bezala ezaba genezake:

(1bisⁱ) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean \emptyset bezala, iragazkaiztea dela gertatzen da.*

Eta honen atzetik, lehen azaldu dugun elisioa letorke:

(1bisⁱⁱ) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean \emptyset bezala, iragazkaiztea da.*

Ikus daitekeenez, azken ondorio hau, A) eta B) sailetan deskribatu ditugun egituren antzekoa da eta beronek, hauxe iradoki lezake: A) saileko (3) adibidea, B)ko (4.1) eta (4.2) adibideak, eta beraien antzeko guztiak eta baita C) honetakoak ere, beharbada, mekanismo orokorrago honen bidez azal litezke: Egitura sakoneko bikoteetarako, aditz performatibo bana asmaturik, bietatik lehenengoa, errepikaturik egoteagatik desagertuko litzateke eta bigarrena, performatibo guztietarako dagoen aukeraren arauera. Lehenengo ezabaketa gertatzen ez deneko kasuan, C) motako perpausak igortzen dira. Edozein kasutan ere, kasu guzti hauek, zentzu hertsiko konparaketak izan gabe nolabaiteko kookurrentzia adierazten dutela onar genezake, maila semantikoari dagokionez bederen. Edozein modutan, *-(e)n bezala* delakoa heltzeko mekanismoa, azaldu gabe geratuko litzateke.

D) Berrikustapenaren 12.13 sailean azaldu dugun *-(e)nez* atzizkidun egituraren erabilera dela eta, agian kookurrentzia delako honen kontestuan sar liteke eta arlo pragmatiko horretatik hasiera batetan baztertu dugun *-(e)n bezala* delakoaz oinarrituriko egitura, onargarri liteke konparaketa modala zehazki izan gabe kookurrentzia delako hori adierazteko. Hala ere, ez da aherentzia behar, kookurrentzia, nonbait, gertaera osoaren konparaketatzat jo litekeenik. Hona hemen, edozein kasutan, *-(e)nez* horren adibide tekniko bat:

(18) *Esan dugun bezala, hauek ez dira guruin endokrinoretan egiten soilik.*

(18a) *Hauek, guruin endokrinoretan soilik egiten ez direla esan dugu.*

(18b) *Hauek, guruin endokrinoretan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Hemen, kookurrentzia esanaren eta gertatuaren artekoa dela onar liteke.

→ (18') *Hauek guruin endokrinoretan soilik egiten ez direla esan dugun bezala, hauek guruin endokrinoretan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Errepikaturiko konpletiboa ezabatuz:

→ (18ⁱⁱ) *∅ esan dugun bezala, hauek guruin endokrinoretan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Aldiz performatiboa ezabatuz eta ordena-transformazioa ere ezarriz:

→ (18ⁱⁱⁱ) *Esan dugun bezala, hauek ez dira ∅ soilik guruin endokrinoretan egiten.*

13.1.2. Konparaketa modala gauzatzeko bestelako baliabideak

13.1.2.1. *Corpusa*

(19) *...nahiz eta platelmintoetan gertatzen den legez gorputz-ormako muskulatura ondo garatuta egon.*

(20) *...Eskizozeliaren era aberrantetzat har omen daitekeenez, eskizozeliaren orokorraren kasu arraro baten moduan tratatuko dugu.*

(21) *Metameroek hanka-pare bana dute; oraindik ez dira giltzatuak, tardigradoenen antzera.*

(22) *...tardigradoengan gertatzen den antzera.*

(23) *Beste araknidoengan gertatzen ez den erara, opilioak orojaleak dira.*

(24) *Malpighio tutuxkak daude; aparato exkretorearen modura funtzionatzen dute.*

(25) *Halaber, sabelidoek, beste poliketo sendentario batzuren modura, prostomioko begiak galdu egin dituzte.*

(26) *Oligoketoen muskulatura zirkularra oso garatuta eta indartuta dago, poliketo zukatzaileenaren moduan.*

- (27) *Anelidoetan gertatzen den gisaz, sipunkulidoen zerebroak, nerbio-sistema motorearen beste elementuak inhibitu egiten dituela frogatu da.*
- (28) *Ketak anelidoenen gisara eratzen dira Echiuridaen.*
- (29) *Molusku-talde bakoitzak bere erara erabili du pareta.*
- (30) *Anelido eta artropodoen gisa, moluskuak ere lakaindunak direla pentsatzen dute.*
- (31) *...formari zegokiolarik, maskorrek aniztasun zabala bait zuten, egun gertatzen den moduan.*
- (32) *...esofagoan dauden elikagaien muki-firuak narraz eramaten ditu, debileta batek eginen lukeen moduan.*
- (33) *Halaber, odoleko tiramina adrenalinarean erara aritzen da kromatoforoaren hedapena eta berorren kolorazio ilunagoa sorterazirik.*
- (34) *Eta surrerago ikusiko duguneko modura, substantzien, garraio-abiaduran datza espezieek izan duten arrakasta.*
- (35) *Goiko eskeman ikus daitekeeneko moduan, fase nuklearren txandaketa beha daiteke.*
- (36) *... posible da...espazioan banatuta egotera jotzea, gaur egungo Stylites audicolan gertatzen denaren antzera.*
- (37) *...lekuzaldatzean hankak presio hidrostatikoz luzatzeko eran (berorrek arnas eta zirkulazio-fisiologian taldeen arteko desberdintasun handiak eskatzen ditu).*
- (38) *Hondakin nitrogenatuzko partikulak aipaturiko eran egotz badaitetze ere, egun arte...*
- (39) *Bestalde, pisu osorako burutu deneko modu berean, pisu somatiko eta maskorraren altueraren arteko erlazioaz baliatuz.*
- (40) *Nektarra ordea tutu edo hodi luzeen barnean daukate, tximeleten tronpa luzez bakarrik lortzeko moduan.*

13.1.2.2. Iruzkinak

Hemen ere, aurreko sailean bezala, zenbait adibidek, hala nola (20), (21), (24), (28), (29), (32) —hipotetiko—, (33), (38), (39), argi eta garbi isladatu dute moduzko konparaketa, beste batzutan berriro ere kookorrentzia kontsideratu behar den bitartean: (19), (22), (23), (25), (26), (27), (30), (31), (34), (35) eta (36).

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, **modu**, **era gisa** + *inesibo-/adlatibo-/instrumental-marka* motako baliabideak zenbaitetan inola ere modua 13.1.1.2 sailean adierazia dugun bezala, berauek kontestu batzutan esangura semantikoa galdurik baliabide gramatikal huts modura funtzionatzen dutela esan dezakegu (ikus 12.09 eta 12.10 sailak).

Beste alde batetik, aipatzekoak dira (37) eta (40) adibideak, beraietan *moduan* eta *eran* partikulak, delimitatiboan deklinaturiko aditz-izenari loturik agertu dira, kasu hori saikapen orokorraren kontutan hartu ez dugularik. Edozein kasutan ere, aditz-izen horrek duen deklinabide-marka dela eta, ikuspegi morfologikotik behintzat, izenlaguntzat har dezakegu, eta beraz, ezin apur diezaguke inola ere aurreko eskema. Dena dela, egitura honek bide duen edukin semantikoa, Axularrek, gutxienez *adizki potentziala* + *-(e)n* + **bezala** formularen bidez isladatu zuen, gaur egun *partizipazioa* + **ahal** + **izateko** + **modu** ere egin daitekeela dirudielarik:

Eta bizitzen garela, ez bekhatuz eta gaixtakeriaz, baina ontasunez eta obra onez, neurria betherik, azkenean zeruko loria erdiats dezakegun bezala (Ax., 083.35).

Gaur egun, *erdietsi ahal izateko moduan* esango genuke, edo eta *erdiesteko moduan*, gure *corpuseko* zenbait adibidetan bezala.

13.1.3. *Bezelako(a)*

13.1.3.1. *Corpusa*

(41) *Pseudozeloma bezalako gorputz-barrunbe baten agerpenak gorpuztaren higidurekin erlazonaturik dauden muskuluen jarreran eta efektibotasunean...*

(42) *Histidina bezalako produktu metabolikoak...*

(43) *Monomeroen sintesibide horiek azeleratzeko modu desberdinak daude: Erreaktanteak kontzentratzea, ioi metabolikoak bezalako katalisatzaileen eragina eta erreakzio-nahastea berotzea.*

(44) *Base purikoak erribosomekin eta magnesioa edo kaltzioa bezalako ioi dibalenteen aurrean fase lehorrean berotuz nukleosido purikoak lortu dira.*

(45) *Entzimak bezalako akoplatzaile eboluzionaturik ez zegoenean...*

(46) *Aipaturiko itzulpen-sistema bezalako bat operatiboa izan dadin,...*

(47) *Hidrogeno sulfuroa bezalako hidrogeno-iturri bat erabiltzeak duen arriskua nabaria, honako hau da:...*

(48) *Ura bezalako elektroi emaile ahulari elektroiak kentzea posible izan zedin, zelulak urak duen erredox-potentziala baino elektropositiboagoa duen substantzia bat aurkitu behar izan zen.*

(49) *Ura bezalako oso elektroi-emaile ahuletik NADPHa bezalako oso elektroi emaile indartsua sintetizatzea lortu zen.*

(50) *Estoma funtzionalak ez dira urpeko landarreetan agertzen ez eta normalean ur-geruza fin batez estalirik dauden goroldioak bezalako lehorreko landare ez-baskularretan.*

(51) *D erako sminoazido batzu, bakterioen ormetan eta gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan ageri dira.*

(52) *Kutikula, beste artropodoena bezalakoa da esentzialki...*

(53) *Zelula hauek ornodunen gibela bezalakoak dira, funtzio berdina betetzen duelarik.*

(54) *Segmentu bakoitzean lau keta daude simetrikoki paratuta; beraien egitura eta garapena metasomako ketarenak bezalakoak bide dira.*

(55) *Horren osteko garapena egungo eskafopodoena bezalakoa izan daiteke.*

(56) *RNAn timina agertu beharrean uraziloa agertzen da, beste hiru baseak DNAn bezalakoak dira.*

(57) *Zelulanitzeko organismoak sortu zirenean, nolana ere, lurraren atmosfera gaur bezalako edo antzekoa zen.*

(58) *...la edozein ikuspuntutik (sic) sulfobakterio fotosintetiko anaerobioak bezalakoak dira, egitura, horma (sic) eta mintz zelular berberak bait dituzte.*

(59) *Anaskoen mintz frontalaren egitura ktenostomatuen orma somatikoarena bezalako da.*

(60) *Peristomio hau, besteak bezalako lakaina zen.*

13.1.3.2. Iruzkinak

Konparaketa adjektibalaren izenpean sailkatu ditugun kasuei dago-kienez, zenbait kasutan bi konparaketa-termino detektatzea inola ere erraza ez dela beha daiteke. Ikus dezagun, horrela, (51) eta (60) adibideak:

(51) *D erako aminoazido batzu, bakterioen ormetan eta gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan ageri dira.*

(60) *Peristomio hau, besteak bezalako lakaina zen.*

Lehenengoari dagokionez, peristemio horrek, gaur egun lakain berezia izanik, aitzinan zituen ezaugarriak eta beste lakainenak erkatzen ari garelarik, ondorio modura, berdinak direla esan dezakegu. Perpaus hori, beraz, beste honetatik eratorria dateke.

(59') *Peristomio hau, beste lakainak ziren bezalako lakaina zen.*

Mota honetako perpausen sorrera-mekanismoa 12.08 sailean azaldua denez, ez dugu berriro errepikatuko, baina azter dezagun (51) adibidea. Antibiotikoek, mundu osoaren gizartearen osasun-arloari ekarri dioten aurrerapen ahaztezina dela eta, gaur egun, edonorentzat, ezagun dira; horrela ba komunitatearen hiztun askok erlaiona ditzake antibiotikoak eta gramizidina edo aktimonizina terminoak.

Antibiotikoak dira beraz, bi horiek, baina areago oraindik, antibiotiko peptidikoak direla, badaki nonbait edozein biologok. Hori horrela izanik, ondokoa pentsa daiteke: (59) delakoari esleitu diogun parafrasia, (50) perpausari ere egokitzekotan, perpausaren edukin semantikoa, aldatu egingo litzateke; hau da:

(51') *D erako aminoazido batzu, bakterioen ormetan eta aktinomizina eta gramizidina diren bezalako (beste) antibiotiko peptidiko batzutan ageri dira.*

Parafrasiak, D erako aminoazidoak agertu direneko antibiotikoak aktinomizina eta gramizidinaren ezaugarri berberak izanik ere, beste batzu direla adierazi du.

Gure ustez ordea, jatorrizko perpausaz D erako aminoazidoak zenbait antibiotikotan agertzen direla eta aktinomizina eta gramizidina antibiotiko horietakoak direla adierazi nahi zuen autoreak. Mota honetako perpausak, ez dute konparaketa adierazten, inklusioa baizik, RIEGELen (1985) zentzuan bederen.

Gure eritziz, bi perpaus-mota horiek, egitura sakonean desberdinak izanik, zenbait transformazioen ondoren, azalerako egituraranzko bidean konfluitu egin diren egiturak lirateke. Behintzat, kontzeptualki, garbi dago mundu errealararen egoera desberdinei dagozkiela, hori antzemateko egitura morfosintaktiko bakarra delako "aurreritzia" egonik ere.

A) Konparaketaren kasuan, ondokoa genuke egitura sakonean:

(a) *Gramazidina eta aktinomizina, horrelakoak dira.*

(b) *Antibiotiko peptidikoak horrelakoak dira* (eta beraz, desberdinak dira).

(c) *D erako aminoazidoak, antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Hiru perpaus koerlazioatu behar dugu beraz, lehenengo biek *hone-lakoak* izen-sintagma amankomuna duten bitartean, azkeneko biek *anti-*

biotiko peptidiko sintagma dutelarik. Hasiara batetan, (a) eta (b) koerlazonatuko ditugu 12.08 sailean azaldu zen modura.

→ $_{\text{po}}[*\text{Antibiotiko peptidikoak}]_{\text{IS[P}_1\text{]}}[\text{gramizidina eta aktinomizina horrelakoak diren}] \text{ horrelakoak] dira}$.

→ **Antibiotiko peptidikoak, gramizidina et aktinomizina \emptyset diren horrelakoak dira.*

→ *Antibiotiko peptidikoak, gramizidina eta aktinomizina diren bezalakoak dira.*

→ (d) *Antibiotiko peptidikoak, aktinomizina eta gramizidina \emptyset bezalakoak dira.*

Orain, (d) eta (c) erlazonatu behar ditugu:

→ $_{\text{po}}[*\text{ D erako aminoazidoak}]_{\text{IS[P}_1\text{]}}[\text{antibiotiko peptidikoak gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren}] \text{ antibiotiko peptidikoetan] agertu dira}$.

Errepikaturiko izen-sintagma ezabatuz,

→ *D erako aminoazidoak $\emptyset \emptyset$ gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Eta amaitzeko, perpaus erlatiboaren izenlagun arruntaz ordezkatzuz:

→ (e) *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

B) Inkusioaren kasuan, hurrengo perpaus hauek erlazonatu behar genituzte:

(a') *Gramizidina eta aktinomizina, antibiotiko peptidikoak dira.*

(b') *D erako aminoazidoak, antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Beraz, adierazi nahi duguna ez da aminoazidoak soilik gramazidinan eta aktinomizinan agertzen direnik, gramizidina eta aktinomizina antibiotiko peptidikoen artean inkluditurik egonda, aminoazido hauek antibiotiko peptidiko guztietan agertzen direla baizik: Inkusio delako erlazioa, beraz. Arazoa lekuzteko gogora daitekeenez, konparaketaren kasuan gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren *bestelako* antibiotiko peptidiko batzutan agertu direla adierazi da.

Erlazio hau adierazteko, 13.1.1 sailean azaldu dugunaren antzeko modura jokatu beharko dugu, kasu honetan *bezalako* juntagailua erabili-ko dugularik. Hemen ere, azpimarratu behar dugu *bezalako* juntagailuak, *horrelako* juntagailu absolutua ordezkatu beharrean, inolako konparaketa adjektibalik ez dagoeneko egituraren txertatu dugu, inkusioaren erlazioa adierazteko baliabide gramatikal huts modura.

→ *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina diren bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Eta adizkia elidituz:

→ (c) *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Horrela ba, egitura sakon desberdinetatik hasita, azalera itxura bera duten bi perpaus lortu dugu. Gure *corpusari* dagokionez, perpaus guztien artean (41) adibidetik (51)raino, *bezalako* partikularen bidez inklusioa adierazi den bitartean, (51)etik (59)raino, konparaketa adierazi dela esan behar da. Bestalde, erraz ikus daitekeenez, inklusioa adierazi deneko adibide guztietan, *bezalako* izenlaguna izenari lotuta erabili da, konparaketari egokitu dizkiogunetan ordea, soilik kasu batetan erabili da modu horretara, beste guztietan aipaturiko partikula kasu-markari zuzenki lotuta agertu delarik.

13.1.4. Konparaketa adjektibala gauzatzeko bestelako baliabideak

13.1.4.1. *Corpusa*

(61) *Baina hortik Kristobal Colomb gaur egun Amerika den modukoa izatearen erantzulea dela ondorioztatzea zilegi litzaiguke?*

(62) *...tetrapodoen orbitaren tamainu erlatiboa osteolepiforme gazteetan beha daitekeenaren antzekoa izateak.*

(63) *Batetik, krokodiloen antzeko animalia akuatikoko batzuren jatorri izan ziren.*

(64) *Azkenez esan dezagun badirela horren gisako eta berdintsu jokatzen duten beste zenbait nukleotido ere.*

(65) *Hau ikusiaz, eta horren gisako arrazoi batzurenatik sortu zen.*

(66) *Nautilusen enbriologia koleoideoenaren modukoa dela suposatuz.*

(67) *Ezkerreko arku sistemikoa desagertu egin da hegaztietan. Baina, oinarritzko eredu morfologikoa narraztien modukoa da.*

(68) *Duten morfologia narraztaileen bezalakoa da.*

(69) *Proboszide hau, ez da poliketo harapatzaileen bezalakoa.*

(70) *Oligoketoen zirkulazio-aparatua poliketoen bezalakoa da.*

(71) *Izainen garapenari dagokionez, oligoketoen bezalako dela esan behar da.*

- (72) *Mitokondriaren errefrakzio-indizea hialoplasmaren antzekoa da.*
- (73) *Espermatozoideen flageloetatik isladatu den espermozinak berezitasun ATPasikoak ditu, miosinak dituen bezalakoak.*
- (74) *Bere egitura sareska endoplasmikoaren bezalakoak da.*

13.1.4.2. Iruzkina

Sail honi dagokionez, *moduko*, *erako* eta *gisako* partikulak konparaketa adjektibala adierazteko erabili dira, inklusioa delakoaren kasurik aurkitu ez dugularik.

Besteak beste, zenbaitetan *bezala* adberbioa *bezalako* izenlagunera aldatzeko bidean, eta halaber *modura* adizlagunetik *moduko* izenlagunera aldatzean ere, nolabaiteko neutralizazioa gertatzen dela esan behar dugu, eta batez ere, partikula hauekiko proklitikoak den hitza genitiboan deklinaturik dagoenean, (66)-(74) direlakoan antzeko akatsak agertzen dira.

Esate baterako, (68) adibidean, *duten morfologia narraztaileen bezalako* da idatzi deneko lekuan, ...*narraztaileena bezalako* da idatzi behar zatekeen. Gauza bera, (67) perpausean *Baina oinarrizko eredu morfologikoa narraztien modukoa* da irakur daitekeenekoan, ...*narraztien modukoa* irakurri behar litzateke.

13.15. Konparaketa ez-orokorra

13.15.1. *Corpusa*

(75) *Dena den, xingola-ereduari dagokion kontrola ez da kolorearena bezain nabaria izaten.*

(76) *...animalienak aurrekoak bezain aktiboak ez izanik.*

(77) *...baina marea bien arteko desberdintasunak ez dira ur-bloke superfizialean ikusten genuen bezain handiak.*

(78) *Aurkitutako aleen kopurua ez da poliketoena bezain garrantzitsua izan.*

(79) *...izan ere intsektu hegodunen urgaritzea eman ez balitz, kelizera-tuak ekosistema lehortarretako partaide hain garrantzitsuak izatera seguras-ki inoiz ez bait ziren helduko.*

(80) *Ezberdintasun sexualak, ez ziren aurrekoan bezain nabariak.*

(81) *Azinoetan bezainbeste granulu agertu dira.*

13.1.5.2. Iruzkinazk

Sail honetan bildu diren adibideei dagokienez, berrikustapen bibliografikoan deskribatu den ereduari jarraitu zaizkiola adierazi behar da.

Horrela ba, kualitatezko konparaketaren kasuan *bezain* eta *hain* juntagailuak azaldu diren bitartean, kantitatezkoarenean, *beste* agertu da.

14. LABURPEN OROKORRA

Como juntagailuak dituen erabilera guztietatik bat, maila semantikoan bederen, konparazioari dagokio. Horrek, gramatika sortzailearen ikuspegitik, hauxe iradoki digu: Egitura sakonean zenbait elementu erreferentzikide dituen bi perpaus gertatuko dira. Erreferentzikidetasun horrek sortereziko du hain zuzen, elementuaren baten elipsia eta bestalde ere, konparazioaren oinarri semantikoaren gunea du bere barnean. Edonola izanik, eta beti kontzeptu sortzaileak erabiliz, azaleran eta euskarai gagozkiola, *bezala* agertuko da mundu logikoan elkarrekin konparatzeko dauden bi termino azaltzen direneko guztietan.

a) *-(E)n* atzizkidun adizki jokatu, izen-sintagma eta partizipioarekiko enklitiko den *bezala*: Konparazioaz gain, modua adierazten bide da.

b) Adizki hipotekikoarekiko enklitiko den *bezala*: Nabaria da egoea hipotekikoarekiko konparaketa isladatzen duela.

c) Lan honetan aztertutiko *corpus* teknikoaren arauera, *bezala* partikula konparaketaren kasuan agertzen deneko kontestu morfosintaktiko berean ager daiteke kookurrentzia delakoa adierazteko.

d) *Bezalako* delakoak, absolutibo-marka hartuz, konparaketa adjektibal orokorra gauzatzen duela badirudi ere, *IS₁* + *bezalako* + *IS₂* egituran, inklusio-erlazioa adierazten duela dirudi.

e) Gazteleraz, *como* bera egonik ere, euskararen baitan lexikalizazio-gradu minimoa izango duen konparaketa egin beharrean, kualitate edo kantitate bati dagokiona egiten denean, *bezain* eta (*bezain*)*beste* azaltzen dira, azken finean *bezala bezain* erlatiboak eta *honela, horrela, hala / honen(beste), horren(beste), hain(beste)* direlakoan alderantziz.

f) Gaztelerazko *comoren* beste zenbait erabilerari dagokionez, hala nola zenbait subordinazio kausal eta konparatibo ez diren zenbait modalenean, *-(e)nez* atzizkia erabil daiteke.

g) *-(E)n + Modu, era, gisa* + *kasu-marka* ereduak duten perpausak, honelako ereduak azal ditzakete:

P + *-(e)n(eko)*.

BEZALA	<p>-<u>Konparaketa modala</u> (orokorra) <i>Aelosomatidae</i> familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoeetan (paratsen dira) bezala paratsen dira</p> <p>- <u>Kookurrentzia</u> <i>Aelosomatidae</i> familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoeetan (pertatsen den) bezala, asko dira.</p> <p>- <u>Atribuzioa</u> (?) <i>Aelosomatidae</i> familiakoak, kutsadura-indikatzaile bezala erabili dira lan honetan (mota honetako egiturak beste lan batetan azter-tuko ditugu)</p>
BEZALAKO(A)	<p>-<u>Konparaketa adjektibala</u> (orokorra) <i>Kutikula</i>, beste artropodoena (den), bezalakoa da</p> <p>- <u>Inklusioa</u> Goroldioak bezalako landare ex-baskularretan, (goroldioak landare ex-baskularretarikoak dira) ex da estomarik agertzen</p> <p>- <u>Atribuzioa</u> (?) <i>Kutsadura-indikatzaile</i> bezalako erabilera hau oso emankor gertatu da</p>
MODU ERA GISA ANTZA	<p>- <u>Henperatu adjektibal arruntak</u> Ikerketa burutu deneko modura mintzatuko gara orain</p> <p>- <u>Konparaketa modala</u> (orokorra) Lehenengo ikerketa burutu den(eko), modura (lehenengo ikerketaren modura), burutu da bigarrena.</p> <p>- <u>Kookurrentzia</u> <i>Aelosomatidae</i> familiakoetan, poliketoen modura (poliketoeetan gertatzen deneko modura), ugalketarako lakainak, asko dira</p> <p>- <u>Atribuzioa</u> <i>Animalia</i> horiek, kutsadura-indikatzaile modura erabili dira ikerketa honetan</p>
MODUKO(A) ERAKO(A) GISAKO(A) ANTZAKO(A)	<p>-<u>Konparaketa adjektibala</u> (orokorra) <i>Kutikula</i> beste artropodoenaren modukoa (beste arteopodoena den modukoa) da</p> <p>- <u>Inklusioa</u> Goroldioen moduko landare ex-baskularretan, ex da estomarik agertzen (goroldioak, landare ex-baskularretarikoak dira)</p> <p>- <u>Atribuzioa</u> <i>Kutsadura-indikatzaile</i> modurako erabilera hau, oso emankor gertatu da.</p>
-(e)NEZ	<p>-<u>Kausalitatea</u> <i>Metodo egokia</i> erabili dugunak (erabili ditugula eta) ondorio zehatzak lortu ditugu</p> <p>- <u>Modua</u> <i>Arzidu</i> dugunak, ikerketarako metodo egokia da</p>

1.3. -koadroa: Gaztelaren como juntagailuarekiko erlazioa duten euskal juntagailuak (laburpena)

I + genitibo-marka + modu...

aditz-izena + delimitatibo-marka + modu...

Hiruretan, edukin semantikoari dagokionez, nolabaiteko gradientea soma daiteke *modu...* eta abarreko izenek jaso duten galera semantikoaren arauera: Perpau adjektibal erlatibo arruntak [-(*e*)neko] edukin semantiko osoko puntan leudeke (*Lehenengo experimentua burutu deneko moduz mintzatuko gara orain*). Gradiente horren erdian, berdintasunezko konparaketa modalak (*Bigarren experimentua, lehenengo burutu deneko modura burutuko da*), bertan, izenaren galera semantikoa ertaina delarik. *Modu* eta abarreko izenak guztiz deslexikalizaturik bide daudeneko puntan, kookurrentzia adiraztekoak izango dira (*Lehenengo experimentuan, bigarreneanaren modura, ondorio interesgarriak lortu dira*).

BIBLIOGRAFIA

- ACADEMIA DE LA LENGUA ESPAÑOLA (1983): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Espasa Calpe, Madrid.
- ALTUNA, P. (1979): *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Ed. Mensajero, Bilbo.
- ALTUNA, P. (1980a): Zenbait sintagmaren batasun hauskorra Ziburuko Etxeberrigan. *Euskera*, 25(2): 381-397.
- ALTUNA, P. (1980b): *Linguae vasconum primitiae* (edizio kritikoa). Mensajero, Bilbo.
- ALVAREZ, J. L. (1978): *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas, Bilbo.
- AZKUE, R. M.^a (1925): *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- AZKUE, R. M.^a: *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.
- BIRAUDM M. (1982): *Les structures comparatives*. Cratyle, 6: 31-43.
- ETXEBARRIA, J. R. (1978): Istripua gertatu deneko ordua. *Anaitasuna*, 1978.eko Urtarrilaren 15.
- GILI GAYA, S. (1961): *Curso superior de sintaxis española*. Spes, Barcelona; 1979.
- GOENAGA, P.: (1980a): *Gramatika bideetan*. Erein, Donostia.
- ITHURRY, (1979): *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Ediciones vascas, Donostia.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire basque*. Elkar, Donostia; 1979.
- LAFON, R. (1980): *Le système du verb basque au XVI^e siècle*. Elkar, Donostia.
- NADAL, J. (1975): *Aspectes de la complementació en el català actual*. Tesi doctorala.
- OYHARÇABAL, B. (1986): Erlatibakuntza: Perpau erlatiboaren egitura; izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean. *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Donostiako Udako IV ikastaroak. Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea.

- RIEGEL, M. (1985): *L'adjectif attribut*. Presses Universitaires de France. Paris.
- RIJK, R. (1972): *Studien in basque syntax: Relative Clauses*. Argitaratu gabeko tesi doktoral. M.I.T.
- VILLASANTE, L. (1979): *Sintaxis de la oración compuesta*. Ed. Franciscana de Aránzazu. Oñati.
- VILLASANTE, L. (1978): *Estudios de sintaxis vasca*. Ed. Franciscana de Aránzazu. Oñati;